



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko otsailaren 25ean

14 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

—Belateko mendateko obrei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).

---

**G Saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Belateko mendateko obrei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko urriaren 27an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako elateko mendateko obrei buruzko fiskalizazio txostena argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko urriaren 29an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Belateko mendateko obrei buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (2. or.).
- II. Aplikatzekoa den araubide juridikoa (3. or.).
- III. Helburua, norainokoa eta mugak (3. or.).
- IV. Ondorioak eta gomendioak (4. or.).
- V. Kostuen laburpen orokorra (8. or.).
- VI. Proiektuak eta azterlanak (10. or.).
- VII. Obra (14. or.).
  - VII.1. Kontratuen xedea (15. or.).
  - VII.2. Kontratazio-espeditenteak (15. or.).
  - VII.3. Esleipen-fasea (18. or.).
  - VII.4. Kontratua formalizatzea (19. or.).
  - VII.5. Kontratuak burutzea (19. or.).
    - VII.5.1. Kontratuei eginiko aldaketak (20. or.).
    - VII.5.2. Kontratuen bukaera (24. or.).
- VIII. Laguntza teknikoa (25. or.).
- IX. Linea eta instalazio elektrikoak (27. or.).
- X. Desjabetzapenak (31. or.).
- XI. Bestelakoak (33. or.).

#### **Eranskinak**

1. Eranskina. 96011 lerroa burutzea. Iruña-Behobia ardatza. (35. or.).
2. Eranskina. 96011 lerroa burutzea. Obren arabera. (36. or.).
3. Eranskina. 96011 lerroa burutzea. 1988tik 1997ra bitarteko ekitaldiak, obren eta urteen arabera. (37. or.).
4. Eranskina. Aldaketak. (38. or.).

#### **I. SARRERA**

##### **1.1. IRUÑA-BEHOBIA ARDATZA**

N-121 errepidea funtsezko ardatza da Nafarroako errepide-sarean. Komunitatea hegoaldetik iparraldera zeharkatzen du, eta Ebroko bailara Iruñerriarekin lotzen du. Iruña eta Mugairi artean, 45 km.ko errepide-zati amankomuna izanik, Behobiarantz erdibitzen da; batetik, Bertizarana eta Bidasoa errekaetara komunikatzen ditu, eta, bestetik, Dantxarinerantz abiatzen da, Baztango bailara barrena.

Daukan garrantziaren ondorioz, ardatz hau Herrilan Departamentuaren jarduketa askoren helburu izan da. Azpiegituretako inbertsioei buruzko Plan orokorra onesten duen otsailaren 28ko 1/89 Foru Legeak Iruña-Behobia ardatza aurreikusten du bide-sareari buruzko atalean.

1988ko kontabilitate-ekitalditik aurrera, aurrekontuetan urte anitzeko lerro bat agertzen da, "96011 Iruña-Behobia ardatza", eta 17107,9 milioi pezetako inbertsioak jasotzen ditu. 1,2 eta 3. eranskinetan gastu horiek xehekatuta agertzen dira, urte, gastuaren izaera (obra, proiektuak, desjabetzapenak eta abar) eta kontabilitatearen ikuspegitik atxikia duten obraren izaeraren arabera.

Ardatz honetan, N-121ak Iruña eta Mugairi artean duen errepide-zati amankomuna, Belateko mendatea zeharkatzen duen puntuan, bereziki

neketsua zen, bai aldats eta malda gogor eta bihurgune hertsiegatik, bai eguraldi-baldintza zailengatik. Gainera, trafiko astun ugariak igarobideak are konplexuago egiten zuen.

Egoera horri konponbidea aurkitzeko, "Belateko mendatea" izeneko obrak agindu ziren; obra horiek, 1997ko abenduaren 31n, 12431 milioi pezetako zenbatekoa zeukaten.

## 1.2. "BELATEKO MENDATEA" OBREN DESKRIBAPENA

Trazadura berriaren abiagunea Arraizko Bentak da. Hortik, iparralderantz zuzentzen da, errepide zaharrari jarraituz, "gurutzearen bihurgune"raino, eta puntu horretatik eskuineko aldetik urruntzen da.

Gune horretan aurkitzen da Ultzamako Bentetako lotunea; horrexek ahalbidetzen du errepide zaharrera heltzea.

Lotune horretatik aurrera aurkitzen da Belateko tunela. 2960 metroko luzera dauka, eta Zeberriako erreka aldetik iristen da.

Errekasto horren eskuineko ertzetik bi kilometro jarraitu ondoren, hartatik aldentzen da eta Marín-eko erreka aldera pasatzen da, 1220 metroko luzera duen Almandozko tunelaren bitartez. Berorren irteeran dago Almandozko lotunea, eta horrexek lotzen ditu errepide berria eta zaharra.

Ondoren, trazadura berritik jarraitzen du, eta Marín eta Berroeta erreka aldetik bi zubiren bitartez (350 eta 120 metrokoak, hurrenez hurren) zeharkatzen ditu. Azken zubi hori igaro ondoren, Berroetako erdi-lotunea dago, zeinak sarbidea ematen duen herri horretara eta beste batzuetara.

Erdi-lotune horretatik aurrera errepide zaharra erabiltzen da, Zozaiako inguruetaraino ailegatu arte. Errepide-zati horretan, egokitzapen eta hobetze teknikorako obrak egin dira.

Zerupeko zatietan, obraren sekzioa hauxe da: bi karrileko galtzada, 7 metroko zabalerakoa, 1,5 metroko bi bazterbide eta 0,5 metroko bermak dituen. Abiadura motelerako bidea duten hainbat zati ere badaude; horiek, 3,5 metroko karril gehigarria eta metro bateko bazterbidea daukate.

Tuneletan, galtzadak 3,5 metroko bi karril, erdibitzailea eta metro bateko bazterbideak dauka.

## II. APLIKATZEKO DEN ARAUBIDE JURIDIKOA

Txosten honek aztergai dituen jarduketari aplikatzeko den araubide juridikoa funtsean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Kontratuei buruzko azaroaren 14ko 13/1986 Foru Legeak (aurrerantzean, KFL), administrazio-klausula partikularren orriek (aurrerantzean, AKPO) eta izenpeturiko kontratuen beren xedapenek osatzen dute. Indarra hartu eta geroko kontratuei dagokienez, laguntza teknikoko kontratuak arautzen dituen apirilaren 25eko 161/1991 Foru Dekretua ere aplikatzeko da. Foru Dekretu horrek indarra hartu baino lehen apirilaren 4ko 1005/74 Errege Dekretua zegoen indarrean. Azkenik, 1994ko maiatzaren 16tik aurrera, esleipen-prozedurei buruzko Nafarroako Gobernuaren Erabakia (aipaturiko datakoa) ere aplikatzeko da.

Halaber, kontratazioari buruzko erregelamendu orokorrik, KFLren edukia garatzen duenik, Nafarroan ez dagoenez, Estatuko Kontratazioari buruzko Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean, EKE) erabili behar dugu, ordezko izaerarekin. Erregelamendu hori Estatuko Kontratuei buruzko Legea (aurrerantzean, EKL) garatzen duen azaroaren 25eko 3410/ 1975 Dekretuaren bidez onetsi zen.

1995eko maiatzean, Estatuko administrazio publikoen Kontratuei buruzko Lege berriak (maiatzaren 18ko 13/1995 Legeak, hain zuzen) EKL ordeztu zuen.

Ingurugiroaren alorrari dagokionez, ingurugiro-eraginaren ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Errege Dekretu Legegileak eta hori garatzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretuak dute indarra; baita Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeak obra horiei buruz eginiko ingurugiro-eraginari buruzko aitopenekek bere ere.

## III. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

### III.I. HELBURUA

Kontuen Ganbara honek, 1998ko ekitaldirako fiskalizazio-programari jarraituz, fiskalizazio-txosten bat egin du Belateko mendateko obrei buruz.

Txosten hau prestatzean, helburu hauek lortu nahi dira:

- Belateko tunelaren obraren burutze-egoera aztertzea eta hartaz ikuspegi orokorra ematea, inbertsioa osatzen duten kontzeptu guztiengatik 1997ko abenduaren 31 arte eginiko ordainketak zehaztuz.

- Obrak izapidatu eta burutzean araudia bete ote den aztertu eta ikuskatzea.

- Gastu-kontzeptuak behar bezala erregistraturik eta dokumentaturik dauden egiaztatzea.

### III.2. NORAINOKOA

Gure lanaren arretagaia hauxe izan da: "Belateko mendatea" izenaz ezaguturiko obrak (hau da, Belateko tunela eta Arraizko Bentak-Zozaia zatia osatzen duten lau azpizatiak eraikitzea) burutzeko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak izapidaturiko kontratazio-espeditenteak aztertzea.

Horretarako, honakoa aztertu dugu: proiektu eta azterlanei buruzko 8 espeditente, obrei buruzko 8, obraren laguntza teknikorako 4, linea eta instalazio elektrikoekin zerikusia duten 6 eta obrak beharrezko egin dituen desjabetzapenak.

"Belateko tunela eraikitzeke kontratua eta horren obra-zuzendaritzarako laguntza teknikoari buruzko kontratua"ren gaineko espeditentea ez dugu aztertu. Berori dagoeneko Ganbara honen txosten baten xede izan da; txosten hori 1994ko abenduaren 28ko 78. zenbakiko NPAOan argitaratu zen.

Prezioak eta eginiko aldaketen egokitasuna eta bukatutako obraren kalitatea bezalako puntuak ez ditugu aztertu, txosten honen xede ez direla pentsatzen dugulako.

Gure lana burutzean, deskribaturiko espeditenteak aztertu ditugu, eta kontu-ikuskaritzako prozedurak nahiz iritzi bat eduki ahal izateko beharrezkotzat jo ditugun egiaztapen guztiak aplikatu ditugu.

Iritzi hori adierazita dago aipaturiko kontzeptuei dagozkien epigrafeetan, eta IV. epigrafean, "ondorioak eta gomendioak" izenekoan, dago laburtuta.

### III.3. MUGAK

Honako administrazio-espeditenteak ezin izan ditugu eskura eduki:

- Proiektuei buruzkoak:

- a) Belateko tunela eraikitzeke proiektua, kontabilitatean erregistraturiko gastua 74,5 milioi pezetakoa duena.

- b) Belateko mendatearen eraikuntza-proiektuko zatiak zehazteko proiektua, kontabilitatean erregistraturiko gastua 8,4 milioi pezetakoa duena.

- c) Tunelak instalatzeko proiektua, kontabilitatean erregistraturiko gastua 7,9 milioi pezetakoa duena.

- Obrari buruzkoak:

Honako obra-espeditente hauek ez zaizkigu eskura jarri: "ezpondak egonkortzea", 54,5 milioi pezetako kontabilitate-ordainketak dituen, eta, hein batean, "III. zatia"ri buruzkoa; horrela, ba, ezin ager dezakegu iritzirik kontratazio-espeditenteari buruz, esleipen-faseari buruz, lehenengo bi aldaketei buruz eta eginiko prezio-aldaketei buruz.

- Laguntza teknikoari buruzkoa:

Azkenik, ez zaigu eskura jarri IV. zatiko laguntza teknikoari buruzko kontratua, 3,8 milioi pezetako ordainketak dituen.

Zelaiko lana 1998ko apiril, maiatz eta ekainean burutu da.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari bere lankidetzak eskertzen diogu, horrek gure lana egitea erraztu egin baitu.

## IV. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

"Belateko mendatea" izenez ezaguturiko obrek 12431 milioi pezetako gastua eragin dute 1997ko abenduaren 31 arte. Horren xehekapena honako hau da:

	Milioi pezeta
Proiektuak eta azterlanak	222
Obra	11.385
Laguntza teknikoa	439
Linea elektrikoak	160
Desjabetzapenak	127
Bestelako gastuak	98
<b>Guztira</b>	<b>12.431</b>

Txosteneko V. atalean ikus daitezke, batetik, gastu horien garapena, obrak banatuta agertzen diren kontzeptu eta zatien araberakoa, eta, bestetik, horien esleipen-hartzaileei buruzko zehaztasunak.

1997ko ekitaldiaren amaieran guztiz bukatua ez zegoen obra bat da; horregatik, 1998an oraindik ari dira obrak, tuneletako instalazioen laguntza teknikoa eta askatutako materialaren ondoriozko konponketak ordaintzen; gure lana amaitzean ordainketa horiek 147 milioi pezetakoak ziren.

Azpimarratzekoa da, txostenaren mugei buruz aritzean (III. atala) xehetasunez adierazi genuen bezalaxe, Departamentuko artxiboetan ez daude-

la proiektu, obra edo laguntza teknikoari dagozkien espediente jakin batzuk, eta arazo hori ez da gertatu izan herrilanei buruz Ganbara honek landu dituen beste txosten batzuetan.

Departamentuko arduradunek hori azaltzeko argudiatzen dute hainbat atal lekuz aldatu direla eta horien bulegoetan hainbat eraldakuntza-obra egin direla, eta, horren ondorioz, ohiz kanpoko artxibo-mugimendua izan dela eta dokumentu batzuk galdu edo beste batzuekin nahastu direla; edonola ere, dokumentu horiek ez dute zerikusirik obra guztiekin.

#### IV.1. PROIEKTUAK ETA AZTERLANAK (TXOSTENEO VI. ATALA)

Proiektuak eta azterlanak, 222 milioi, mailaz maila egin dira; bakoitzak, aurrekoak agertzen zituen konponbideak zabaldu eta zehazten ditu, jarraian xehekatzen den moduan:

Proiektua/Azterlana	Esleipen-hartzailea	Milioi pta.
Bideragarritasun sozioekonomikoari buruzko azterlana	Iberinsa	5
Belateko mendateari buruzko azterlana	Iberinsa	10
Belateko mendateko trazadura, tunela eraikitzea	Euroestudios	110
Prospekzio arkeologikoa		
Belateko mendatean	Gabinete Trama	1
Belateko mendatea eraikitzea	Euroestudios	74
Arraizko Bentak-Zozaiako zatiak zehaztea	Euroestudios	8
Tuneletako energia		
elektrikoaren hornidura	Proyect. y Prom., SL	6
Tuneletako instalazioak	Euroestudios	8
Guztira		222

Txosteneko VI. epigrafean xehekatuak ikus daitezke lizitazio- eta esleipen-aurrekontuak, aldaketa, eginiko ordainketak eta kasuan kasuko enpresa esleipen-hartzaileak eta esleipen-modu eta -urtea.

Oro har, azterturiko administrazio-espedienteak osoak dira, eta aplikatzekoak diren legezko betekizunak betetzen dituzte, Herrilan Departamentuan jadanik ohizko bihurtu den salbuespen batekin: izan ere, izenpeturiko kontratuen bidez aurre egin nahi zaien beharrianak asetzeko Departamentuak dauzkan bitarteko pertsonal eta materialak behar adinakoak ez izatea, egoki ez izatea edo horiek gehitzea komenigarria ez izatea ez du justifikatzen.

Hala ere, azpimarratu beharrekoak dira obraren aldaketa ugari eta garestiak; horrek agerian

utziko luke proiektuen kalitate kaskarra, bereziki Belateko tunelari eta III. zatiari (Arraizko Bentak-Zozaiak) dagokienean; horien egileei erantzukizuna eskatu izanaren konstantziarik, ordea, ez dago.

Aurreko ondorioei jarraituz, honako gomendio hauek egiten ditugu:

- *Legeak galdatzen duena, hau da, proiektuak burutzeko sektore pribatura jotzearen beharra justifikatzea, behar bezala bete dadila espedientean.*

- *Bereziki zaintzea aurreikusitako datetan burutzen direla proiektuak, eta, indarrean dagoen araudiari jarraituz, hasieran aurreikusitako epea luzatzea, baldin eta hori justifikatzen duen kausarik badago, edo justifikatu gabeko atzerapenengatik esleipen-hartzailea zigortzea.*

- *Departamentuan proiektuak ikuskatu eta kontrolatzeko eginkizuna daukaten organoek beren eginkizun hori areagotu dezatela, eta, beharrezkoak diren bitartekoak ez badituzte, hirugarren pertsonak egin dezatela hori. Ikuskapen horrek proiektuen kalitatea bermatu beharko du, eta proiektuetako akatsek eta aurreikuspen-erak beranduago, obren burutze-fasean, eragina izan dezatela ahal den heinean saihestu beharko du.*

#### IV.2. OBRA (TXOSTENEO VII. ATALA)

Obra kontzeptupean ordaindutako zenbatekoa 11.531 milioikoa da, eta honela dago xehekatua:

	Esleipen-hartzailea	Milioi pta
Belateko tunela	Lain-Auxini Posusa	4.215
Tunelak, instalazioa	Dragados-Sice-Eserma	1.026
Arraizko Bentak-Zozaiak.		
I. Zatia	Padenasa	492
Arraizko Bentak-Zozaiak.		
II. Zatia	Obras Alvargonzález	2.594
Arraizko Bentak-Zozaiak.		
III. Zatia	Constr. Mariezcurrena	2.310
Obra osagarriak	Constr. Mariezcurrena	32
Arraizko Bentak-Zozaiak.		
IV. Zatia	Iruña-Padenasa-Azpíroz y S.Alaiiz Biurrun	577
Landaretza berritzea	Viveros y Repoblaciones	139
Guztira		11.385

VII. atalean ikus daitezke lizitazio- eta esleipen-aurrekontuen xehekapen bat, egindako obra-aldaketak eta ordainketak eta enpresak; baita ere, esleipen-urtea eta -modua.

Aipaturiko espedienteak prestatzeko jarduketak osoak daude eta indarreko legediak galdatzen dituen betebeharrak betetzen dituzte.

#### IV.2.1. Esleipenak

Esleipen-modua, funtsean, lehiaketa izan da. AKPOan agerturiko irizpideak Belateko tunelaren kontrataziorako ezarritako berberak dira; hau da: eskaintako aurrekontua, eskaintza eta alternatibak, burutze-epea, esperientzia eta enpresaren gaitasuna eta enpresa egokitua egotea obren ezaugarri tekniko, denborazko eta kokapenekoe-tara. Ez da adierazten horietako bakoitzaren garrantzi erlatiboa nola zehazten zen ordurarte, ezta nola ebaluatuko diren ere.

Dena den, AKPOen akats hori Departamentuak ondoren izandako jarduketak gainditu zuen; zati guztietarako 1994ko maiatzaren 9ko 55. zk.ko NAOan argitaratutako iragarpen-lehiaketan bilera baterako deia egin zitzaizen interesatu guztiei, eta bilera horretan esleipen-irizpideen puntuazioaren eta horiek baloratzeko metodologiaren berri eman zitzaizen.

“Tunelak, instalazioak” kontratuan, esleipen-irizpideak agertzen eta zenbatesten dira, eta horiek baloratzeko metodologia adierazten da.

Beraz, esan daiteke ezen, beste garai batzuetako zehaztasun-ezaren aurrean, Departamentuak ahalegin bat egin duela egin beharreko lehiaketetako esleipen-irizpideak objektibatze eta iragartzeko.

Oro har, espedienteetan ez da agertzen lizitazioaileek aurkeztutako dokumentazioa, zeren eta, legediak baimentzen duenari jarraituz, lehiatzaileek, lehiaketa ebatzi ondoren, ekarritako dokumentuak eraman baititzakete. Horren ondorioz, ezin da egiaztatu AKPOetako baldintzak betetzen direnik, eta enpresa bakoitzak lortutako puntuazioa ere ezin da kontrastatu.

Kasu guztietan, Bide Zerbitzuak proposamen-txostenean onuragarrien zeritzon eskaintzari egin izan dio esleipena Herrilan kontseilariak.

Eginiko esleipenetan beherapen portzentaia altua -ehuneko 24,30ekoa, batez beste- izan dela somatu da; dena den, beherapen hori konpentsatua geratu da kontratuetan eginiko aldaketekin; zehazki, horietan izandako desbideraketak batez beste ehuneko 33,47koak izan dira esleituriko aurrekontuarekiko (txosteneko VII-5 atala).

#### IV.2.2. Aldaketak eta burutze-epeak

Txosteneko 4. eranskinean aldaketa bakoitzari buruzko informazioa jasotzen da (zenbatekoa, aldaketa-mota); baita ere, aldaketa horiek egiteko beharra justifikatzeko Departamentuak aipaturiko kausen laburpen bat.

Bereziki aipagarri dira III. zatiko eta Belateko tuneleko aldaketak; horiek ehuneko 70,6ko eta 35,4ko gehikuntza eragin dute, hurrenez hurren.

Belateko tunelak, esleitua izan zenez geroztik, honako aldaketa hauek jasan ditu: bi aldaketa ordainketa-epeetan, gastua areagotzen duten lau kontratu-aldaketa (horietako hirutan, baita ere, burutze-epearen luzatzea) eta azken likidazioarekin batera eginiko bosgarren aldaketa bat, zeinak gastua areagotzen baitu.

Prezioak eta burutze-epeak jasandako aldaketa garrantzitsu horien (izan ere, aurreikuspena 24 hilabetetan burutzekoa izatetik 42 hilabetetan burutzekoa izatera igaro baita) ondorioz, Herrilan Departamentuko kontuhartzaitzak eta zerbitzu juridikoek zalantza larriak dituzte proiektuaren egokitasunaz eta hori ikuskatzeko moduz, eta proiektua idatzi zutenei erantzukizuna eskatzeko aukera ere aipatu dute. Alabaina, aukera hori ez da praktikan jarri.

III. zatiari dagokionean, horrek ere aldaketa ugari jasan du hasierako kontratuan, halakoa non ordainketak ehuneko 70,6 handiagoak baitira esleituriko aurrekontua baino. Kontratuak bost aldaketa jasan ditu, presazko aldaketa bat, azken likidazioarekin batera eginiko aldaketa bat eta obren bermealdian onetsitako 27,6 milioi pezetako larrialdiko obra batzuk; horien likidazioa edo faktura ez da espedienteetan ageri.

Aztertu ditugun aldaketek legediak eskatutako akta eta dokumentu guztiak dituzte, aipaturiko fakturarena salbuespena izanik.

Azkenik, azpimarratu beharrekoa da tunel-instalazioaren obrak jasandako aldaketa bat; halako obra gisa izapidatua izan den arren, zerbitzua emateko kontratu bat da, benetan. Kontratu horren beharra Belateko tunela amaitutakoan nabaritu zen, beharrezkoa baitzen teknikari-talde batek instalazioak mantendu eta ikuskatzea. Horren kostua hilean 10 milioi pezetakoa da.

Azalduriko ondorioei jarraituz, honako gomen-dio hauek egiten ditugu:

- *Lizitazioaileek aurkezturiko garrantzizko dokumentazio teknikoaren konstantzia egon dadila espedienteetan, klausula-orrietan obrak esleitzeko ezarritako irizpideak behar bezala balioetsiak izan direla uneoro egiaztatu ahal izan dadin.*

- *Espedienteak ordenaturik eta osorik gordez, eginiko gastuak agertzen dituen dokumentazio guztia barne.*

- *Prezioen eta obrak burutzeko epeen aldaketa gainera erantzukizuna behar bezala balioes-*

*tea eta kasuan kasuko kalteordainak eta erantzukizuna eskatzea obraren esleipen-hartzaileei edo proiektuaren egileei.*

#### IV.3. LAGUNTZA TEKNIKOA (TXOSTENENKO VIII. ATALA)

Lehiaketa bidez esleituriko laguntza teknikorako bost kontratuk erakarrirako guztizko gastua, 1997ko abenduaren 31n, 439 milioi pezetakoa zen. Tunelak instalatzekoa indarrean zegoen oraindik data horretan; horregatik, une horretatik aurrera ordainketak sortu ditu.

Obra	Esleipen-hartzailea	Milioi pta.
Belateko Tunela	Elsamex	243
I. eta II. zatia	Elsamex	147
III. zatia	Elsamex	21
IV. zatia	Lab. Proyex	4
Tunelak, instalazioak	Euroestudios	24
Guztira		439

Obra-kontratuetan gertatzen zen bezalaxe, azterturiko kontratu bakar batean ere proposamenak ez du jasotzen asetu beharreko beharrizanei buruzko txostena, zeina erantsita eduki beharko bailuke; era berean, beharrizan horiei aurre egiteko Departamentuak dauzkan langile- edo material-bitartekoak eskasak edo desegokiak diren edo horiek ez ugaritzea komenigarria ote den esaten duen txostena ere falta du. Lizitatzailerek ekarritako dokumentazioa ere ez da erantsi.

Kasu guztietan, Herrilan Kontseilariak Bide Zerbitzuaren proposamen-txostenak onuragarrien zeritzon eskaintzari egin izan dio esleipena.

Hala ere, III. zatiko eskaintzen balioespenarekin batera, proposamen-txostenak ez du balorazio-koadrorik ekartzen, eta esleipen-hartzailea hautatzean eragina duten kausak ere ez ditu deskribatzen.

Belateko tunelerako laguntza teknikoak aldakuntza handiak izan ditu, obren atzerapenaren ondorioz. Hori dela-eta, ordainketak esleipen-kontratua baino ehuneko 43 gehiagokoak dira.

Laguntza teknikoari dagokionean, hauxe agertu nahi dugu: obren zuzendaritza teknikoko eta kalitate-kontrolako eginkizun horiek piskanaka pribatizatzen ari dira; horren ondorioz, administrazioak obren exekuzioaren gain egin behar duen kontrola ahuldu daiteke, eta, epe luzeagoan, obren exekuzioa piskanaka desteknifikatzea gerta daiteke.

Puntu hori 1994ko 61. zk.ko Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialak argitaratutako administrazio-kontratazioari buruzko aholkularitza-txostenean landu zuen Ganbara honek.

Aurreko ondorioei jarraituz, honako gomendio hauek egiten ditugu:

- *Asetzekoak diren beharrizanei buruz egin behar den txostena, batetik, eta beharrizan horiei aurre egiteko Departamentuak dauzkan langile- edo material-bitartekoak eskasak edo desegokiak diren edo horiek ez ugaritzea komenigarria ote den esaten duen txostena, bestetik, kontratu-proposamenari erantsi behar zaizkio, legeak galdetzen duenez; ondorioz, behar bezala bete bedi legearen xedapen hori.*

- *Lizitatzailerek ekarritako dokumentazioa espedienteari erantsi bekio, obra kontratuetan bezalaxe.*

- *Esleipen-hartzailearen hautaketaren nondik norakoak azaldu ahal izateko, esleipen-irizpideak behar bezala balioetsi bidez eta balioespen hori espedienteari erantsi bekio.*

#### IV.4. INSTALAZIO ELEKTRIKOETARAKO LINEAK (TXOSTENENKO IX. ATALA)

Tuneletako instalazioek dituzten elektrizitate-beharrei erantzuteko eginiko obrek honako ordainketa hauek egitea ekarri dute ondorio gisa:

	Milioi pezeta
Iberdrola	39,4
Cubiertas/Feler	105,1
Feler	16
Guztira	160,5

Espedienteetan agertzen diren kontratuen esleipenak eta exekuzioa indarreko araudiaren arabekoak dira.

#### IV.5. DESJABETZAPENAK (TXOSTENENKO X. ATALA)

Desjabetzapenen ondoriozko ordainketak 127 milioikoak dira. Indarreko araudiaren arabera egin dira horiek.

Kalteordainetan ordaindutako kopuruak arrazoizkoak dira. Kalteordain guztiak adiskidetasunezko adostasunez erabaki dira, eta kasu guztietan Desjabetzapen Atalaren txosten bat erantsi da, balio justua zehazteko aplikaturiko irizpideak agertzen dituena.

#### IV.6. BESTELAKOAK (TXOSTENeko XI. ATALA)

Hainbat kontzeptu, orotara 98 milioiko gastua dakartenak. Horien artean dago Iturengo piszifaktoria 47 milioiko prezioan erostea, kalteturiko linea elektrikoak ordezteak, horren zenbatekoa 16 milioikoa izanik, eta inaugurazio-gastuak, zeinak 23 milioikoak baitira.

Belateko mendateko obren berrikuspenaren azken **ondorio gisa**, hauxe esan genezake:

Obrak egin dira aurrekariak 1989koak dituzten proiektu batzuei jarraituz; proiektu horiek mailaka garatuz joan dira ondorengo ekitaldietan. Proiektu horien kalitatea zalantzan jarri dute hala kontuhartzaitzak nola Herrilan Departamentuko zerbitzu juridikoek, obrak burutu ahal izateko beharrezkoak izan diren aldaketak ikusirik.

Proiektu horiek Departamentutik kanpo egin dira, eta ez dira behar bezala ikuskatuak izan obrak esleitzen hasi aurretik.

Esleipenerako, obrak zati gehiegitan banatu dira, eta zatikatze hori ez da inolako arrazona-mendu teknikoren ondoriozkoa, ezen obren gauzatzea zaildu ere egin baitute beranduago.

Esleipenak beherapen handiekin egin dira, nahiz eta, ondoren, obra-aldaketekin konpentsatuak geratu diren; bereziki garrantzitsuak dira aldaketa horiek Belateko tunelean eta III. zatian, eta, gainera, horien burutze-epeek atzerapen handiak jasan dituzte, irizpide horixe bera, hau da, epearena, obra-esleipenean kontuan hartzekoa izan arren.

Azkenik, Herrilan Departamentuak proiektuen egileei edota obra-kontratastei prezioek eta exekuzio-epeek jasandako aldaketa nabarmenengatik erantzukizuna eskatu izanaren konstantziarik ez daukagula esan behar dugu.

#### V. KOSTUEN LABURPEN OROKORRA

Behean erakusten dugun laburpen-koadroak obrari egoztekoak diren gastu-kontzeptu guztien berri ematen du. 1997ko abenduaren 31ra bitartean eginiko ordainketa guztiak jasotzen ditu.

Kontzeptuak milioika pezetatan azaltzen ditugu, oinarri gisa obra baten prozesu normalaren sistematika hartuz, ahal den heinean. Hau da: proiektuak, obra, laguntza teknikoa, linea elektrikoak, desjabetzapenak eta bestelako gastuak.



	Esleipen- hartzailea	Proiektu/ Azterlanak	Obra	Laguntza teknikoa	Linea elektrikoak	Desjabe- tzapena	Bestelako gastuak	Guztira
Gizarte- eta ekonomia-bideragarritasunari buruzko azterlana	Iberinsa	5,0						
Belateko mendateari buruzko azterlana	Iberinsa	9,9						
Belateko mendateko trazadurari buruzko proiektua eta tunela eraikitzea	Euroestudios	109,7						
Prospekzio arkeologikoa, Belateko mendatea	Gabin Trama	0,7						
Belateko mendatea eraikitzeari buruzko proiektua	Euroestudios	74,5						
Arraizko Bentak-Zozaia zati-zehazteari buruzko proiektua	Euroestudios	8,5						
Tuneletako elektrizitate-hornidurari buruzko proiektua	Pry. y Prom. I.	6						
Tuneletako instalazioei buruzko proiektua	Euroestudios	7,9						
0. zatia. Belateko Tunela.	Aux.i.-Lain-Posusa		4.215,3					
1. zatia. Arraizko Bentak-Zozaia.	Padenasa		491,7					
2. zatia. Arraizko Bentak-Zozaia.	Alvargonzalez		2.593,5					
3. zatia. Arraizko Bentak-Zozaia.	Mariezcurrana		2.310,1					
3. zatia. Almandozko obra osagarriak.	Mariezcurrana		31,7					
Tunel arteko ezponda.	Mariezcurrana		54,5					
4. zatia. Arraizko Bentak-Zozaia.	Ute. Baztan		577,4					
Tuneletako instalazioak.			972,1					
Landareztatzea, Arraizko Bentak-Zozaia.	Viveros y Repobl.		139,0					
Laguntza teknikoa, Belateko tunela.	Elsamex			243,3				
Laguntza teknikoa, 1. eta 2. zatiak, Arraizko Bentak-Zozaia	Elsamex			147,0				
Laguntza teknikoa, 3. zatia, Arraizko Bentak-Zozaia.								
Arraizko Bentak-Zozaia.	Lab. Proyex			3,9				
Laguntza teknikoa, tuneletako instalazioak.	Euroestudios			23,6				
Laguntza teknikoa, batura, Belate-Almandoz tunelak	Iberdrola				38,6			
3 tunel-proiektu burutzea, batura	Ute Cubiert./Feler				120,6			
Tunelaren hegoaldeko sarrerako linea egokitzea	Iberdrola				1,1			
Laguntza teknikoa, desjabetzapenak	Ismael Oscoz					1,9		
Desjabetzapenak ordaintzea						125,1		
Iturengo pizifaktoria erostea							47,0	
Belate inauguratzea	Varios						23,1	
CTNEren lineak berriro jartzea	C.T.N.E						2,7	
Linea elektrikoak berriro jartzea	Iberdrola						16,3	
Maketa egitea	Nivel 3 maquetas						0,7	
Ikusentzunezkoa	Blok S.A.						7,3	
Guztira		222,2	11.385,4	438,8	160,4	127	97,1	12.431

Adierazi beharra dago obra hau ez zegoela guztiz burutua 1997ko ekitaldiaren amaieran; hori dela-eta, 1998an, hauxe gertatzen ari da: alde batetik, tunelen instalazioetarako obren eta horretarako laguntza teknikoaren ondoriozko hainbat ordainketa egiten ari dira, oraindik ere; bestalde,

hainbat material desitsatsi eta erortzearen ondorioz, konponketa batzuk egiten ari dira; horien kostua, gure lana amaitzean, 147 milioi pezetakoa zen.

Hurrengo epigrafeetan gastu-kontzeptu bakoi-tza garatuko dugu:

**VI. PROIEKTUAK ETA AZTERLANAK**

Jarraian erakusten dugun koadroak azaltzen duena hauxe da: egin diren proiektuek erakarri dituzten gastuak zeintzuk diren, 1997ko abendua-

ren 31n zeukaten zenbatekoarekin (milioika pezetatan). Proiektu horiek elkarrekiko mailakatuz egin dira; hau da, bakoitzak aurrekoaren aurreikuspenak garatu, zabaldu eta zehazten ditu.

	Gizarte- eta ekonomia-bideragarritasunari buruzko azterlana	Belateko mendateari buruzko azterlana	Belateko mendatearen trazadura egitea eta tunela eraikitzea	Prospekzio arkeologikoa, Belateko mendatea	Belateko mendatea eraikitzea	Arraizko Bentak-Zozaia zati-zehaztea	Tuneletarako elektrizitate-hornidura	Tuneletarako instalazioak
Lizitazio-aurrekontua	6.000.000	9.999.000	80.000.000	707.940			6.000.000	
Esleipen-aurrekontua	5.048.400	9.947.840	79.929.782	707.940			5.957.000	
Beharapena	15,86	0,51	0,09	0,00			0,72	
I. Aldaketa			27.883.408					
Behin-behineko likidazioarekin batera eginiko aldaketa			1.125.000					
Aldaketa, guztira	0	0	29.008.408	0			0	
Aurrekontu bateratua, guztira	5.048.400	9.947.840	108.938.190	707.940			5.957.000	
Ziurtagiriak	5.048.400	9.947.840	108.938.190	707.940			5.957.000	
Diferentzia, BEZ	0	0	714.773	0			0	
Ordainketak, guztira	5.048.400	9.947.840	109.652.963	707.940			5.957.000	
Ordainketa/esleituia, %	100,00	100,00	137,19	100,00			100,00	
Esleipen-mota	Directa 3 empr.	Directa 3 em	Lehiaketa	Dir. sin conc.	Concurso		Directa 3 empr.	Directa
Esleipen-urtea	1989	1989	1990	1992			1994	
Esleipen-hartzailea	Iberinsa	Iberinsa	Euroestudios	Gabinete Trama	Euroestudios	Euroestudios	Proyectos y Promociones Ingenieria SL	Euroestudios
Kontabilizatua	5.084.400	9.947.840	109.652.963	709.940	74.546.250	8.461.642	5.957.000	7.900.000

### VI.1. AURREKARIAK (GIZARTE- ETA EKONOMIA-BIDERAGARRITASUNARI BURUZKO AZTERLANA ETA BELATEKO MENDATEARI BURUZKO AZTERLANA)

1989ko maiatzean bi espediente onetsi ziren, honako hauek kontratatzeke asmoz: "Belateko mendatea -Iruña-Behobia ardatza- hobetzeko gizarte- eta ekonomia-errentagarritasunari buruzko azterlana" eta "Belateko mendateari buruzko azterlana, Iruña-Behobia ardatza hobetzeko".

Horietako lehenaren xedea hauxe da: Baztan-Bidasoa eskualdea zeharkatuz Iruña eta Frantziaren artean errepide bidezko komunikazio erraz eta eroso lortzeko egoki diren jarduketak alde aurretik eta gizarte- nahiz ekonomia-errentagarritasuneko ikuspegietatik zehaztea. Horretarako, hainbat puntu ukitu behar du, hala nola esparru geografikoa, oinarritzko datuen ekarpena, lanbide-jarduerak jasango duen eragina, irizpide anitzeko analisia, inbertsio-plana eta bidesaria ezartzeari buruzko azterlan bat.

Bigarren azterlanak helburu berbera dauka, baina bideragarritasun teknikoaren ikuspegitik jorratua. Kontsultoreak aztertu behar dituen puntuak hauexek dira: korridorea mugatzea, oinarritzko datuen ekarpena, trafiko-analisia, gaur egungo errepideari buruzko datuak, gaur egungo errepide egokitzeko datuan aukera, korridore horren alternatiba orokorrak planteatu eta aztertzea, dau den aukerak balioestea eta ingurugiro-eragina ebaluatzea.

Lizitazio-data kontuan edukiz, laguntza teknikoari buruzko kontratuok apirilaren 4ko 1005/1974 Dekretuak arautzen zituen. Dekretu horrek Estatuak aholkularitza- edo zerbitzu-enpresekin eginko kontratuak arautzen ditu, eta otsailaren 16ko 597/1986 Errege Dekretuak aldaketak egin dizkio.

Bi horietarako, kontratazio-espedientea erabat osatua dago, eta Dekretu arautzaileak galdatuta-koari jarraitzen zaio, salbuespen honekin: Departamentuan ohikoa denez, ez da frogatu kontratuaren bitartez asetuta nahi diren beharrezko erantzuteko Departamentuak dituen langile- eta

material-bitartekoak behar adinakoak edo egokiak ez direla edo horiek gehitzea komenigarria ez dela.

Horien esleipena zuzenekoak izan zen, eta hiru enpresa bereberri egin zitzairen kontsulta; izan ere, zenbatekoa 10 milioi pezeta baino baxuagoa duten kontratuatarako, 2917/1983 Errege Dekretuak esleipen-era horretarako legezko gaikuntza eman zuen. Bi kasu horietan, eskaintzarik merkeenari egin zitzaion esleipena.

Kontratuak epe barruan formalizatu ziren, administrazio-dokumentu batean, eta legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen direla, hau da, nortasuna, gaitasun juridikoa, sailkapena, gizarte- nahiz zerga-betebeharrak eta abar betetzen direla, frogatua dago. Kontratu horietan fidantzak ere jarri dira, legeak ezartzen duen portzentaian.

Bi kasu horietan, epe barruan behin-behineko nahiz behin betiko harrera egin izanaren akten konstantzia badago. Ordainketak esleipen-aurrekontuari zehaztasunez doituak daude.

## VI.2. BELATEKO MENDATEKO TRAZADURARI BURUZKO PROIEKTUA; ZATIA: ARRAIZKO BENTAK-DONEZTEBE; TUNELA ERAIKITZEARI BURUZKO PROIEKTUA

Izenak berak dioten bezala, kontratuak bi xede dauzka; baita jarraibide teknikoei buruzko bi orri ere.

- Belateko mendateko trazadurari buruzko proiektua - zatia: Arraizko Bentak-Donetztebe.

Aurreko idazatian aipaturiko bideragarritasun teknikoari eta gizarte- nahiz ekonomia-errentagarritasunari buruzko azterlanak ikusirik, trazadura-proiektuaren garapena bi fasetan planteatzea erabaki da. Lehendabizi, dauden alternatibak aztertu behar dira, eta ikuspegi tekniko, ekonomiko, ingurugiro-eragineko eta abarretatik egokien dena aukeratu behar da. Soluzio hori Administrazioak onartu ondoren, dagokion trazadura-proiektua lantzeari ekingo zaio.

- Tunela eraikitzeako proiektua.

Aurrekarien eta aurreko trazadura-proiektuan buruturiko azterlanen arabera.

Xede hauek ditu:

a) Tunelen proiektu banakatuak (bat baino gehiago balego).

b) SOS sistema, horren kontrolgunea eta lainoa nahiz elurra dagoenerako seinaleztapen-sistema berezi bat taxutzea.

c) Instalazioen ondoko eraikina diseinatu, zehaztu eta xehetasunez garatzea.

d) Tuneletako argizatze eta aireztatzea, trazadura-proiektuko irizpideen arabera.

e) Ingurugiro-eraginari buruzko azterlana, tunelen trazadura-proiektuko osatzen duena.

f) Laneko segurtasun eta higienari buruzko azterlana.

Kanpoan uzten dira, espreski, tuneletako zorua, seinaleak, balizak eta landareztatzea; horiek guztiak errepidearen gainontzekoa eraikitzeako proiektuan sartuko dira.

Espedientea 1990eko apirilkoa da. Beraz, apirilaren 4ko 1005/1974 Dekretuak arautzen du kontratazioa. Hain zuzen, Dekretu horrek eraentzen ditu Estatuak aholkularitza- eta zerbitzu-enprekin eginiko kontratuak.

Kontratazio-espeditentia arauketa egiten duen Dekretuaren edukari jarraitzen zaio, honetan izan ezik: Departamentuak dauzkan bitarteko pertsonal eta materialak behar adinakoak ez izatea, egoki ez izatea edo horiek gehitzea komenigarria ez izatearen frogarik ez duela eskaintzen. Esleipen-era gisa lehiaketa ezartzen du eta esleipen-irizpideak agertzen ditu, balioespen-metodologia zenbatetsi edo azaldu gabe. Iragarkia Estatuako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Esleipenerako, araudiak eskatutako administrazio-egintza guztiak egin izanaren konstantzia badago. Lizitazioko gehieneko aurrekontua (80 milioi) baino txikiagoak bi eskaintza besterik ez dira. Gainontzeko lau eskaintzak 126 eta 159 milioi pezeta artekoak dira.

Eskaintza onena Euroestudios-ena zela zioten bi txosten teknikotan oinarrituz, kontseilariak esleipena egin zuen. Txosten tekniko horietako bat Departamentuak berak eginikoa da, eta bestea Kataluniako "Institut de tecnologia de la construcció" delakoak; horrekin, Departamentuak lankidetzaren hitzarmen bat zeukan.

Kontratu administrazio-dokumentu bidez formalizatu zen, formalizatua izan behar zuen eguna baino hiru hilabete eta hogeita egun beranduago. Kontratu burutzeko epea kontratu sinatu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasten denez gero, horrek kontratuz kanpoko epe gehigarri bat ematen dio esleipen-hartzaileari. Kontratu esleitu eta formalizatu arteko denboran aholkuemailea jadanik lanean zegoelako konstantzia badago. Horrela, ba, kontraturiko lana formalki epe barruan egin bazen ere, errealitatean kontra-

tuko epea baino 154 egun beranduago entregatu zen.

Kontratuaren exekuzioan bi aldaketa onetsi ziren, eta horiek prezioa ehuneko 37,19 igo zuten.

Aldaketa horietako lehenengoaren jatorria hauxe da: eginiko lanen kostu-gehikuntzaren justifikazioa, kontratua sinatu aurreko egunean aholkuemaileak aurkeztu zuena, hain zuzen. Araudiak eskatutako tramite guztiak betez izapidatu zen. Justifikazio horren oinarri gisa aipatzen du zundaketa gehiago egin direla eta metro gehiago zulatu direla, eta proiektuko idazketa-unitateak gehitu direla, beharrezkotzat jo izateagatik proiektu osatuagoa egitea, Marín errekastotik joango dena, maila ezberdinetako lotura, tunel eta bidezubi gehiagorekin.

Bigarren aldaketa bi proiektu horiek jasotzeko proposamenaren barnean sartuta dago, eta aipatzen zen ezen, izandako alegazioak zirela-eta, kontsultoreari txosten-azterlan teknikoa egitea eskatu zitzaiola, Mugairi hegoaldeko lotunea zabaltzeko aukerari eta horren abantaila, desabantaila, afekzio, ingurugiro eragin eta abarri buruzkoa.

Trazadura proiektua, tunela eraikitzekeo proiektua eta Belateko tunelaren instalazioen proiektua behin-behineko eta behin betiko jasoak izatearen konstantzia badago.

### VI.3. BELATEKO MENDATEAREN TRAZADURAREN PROSPEKZIO ARKEOLOGIKOKO AZTERLANA

Belateko Mendatearen trazadura proiektua, Arraizko Bentak-Doneztebe, udalez gaindiko proiektu sektorial gisa izapidatzean, Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeak eginiko ingurugiro-eraginari buruzko azterlanak adierazten du kultur eta arkeologi ondareak ez duela kalterik jasango. Hala eta guztiz ere, proiektuak udalez gaindiko eragina duela dioen Nafarroako Gobernuaren erabakiak agintzen du puntu horri buruzko txostena eskatzea Vianako Printzea Erakundeakultura Zuzendaritza Nagusiari.

Departamentua Vianako Printzea Erakundearekin harremanetan jarri ondoren, erakunde horrek gomendatu zuen lan hura Trama enpresari kontratatzea, "lan-mota horretan ageriko esperientzia duen bakarra izateagatik eskualde honetan".

Horren ondorioz, laguntza teknikoa kontratatzekeo espediente bat egin zen, zeina 161/91 Foru Dekretuak arautzen baitu.

Kontratazio-espedientea osoa da, eta bertan foru dekretu arauemaileak eskatzen dituen admi-

nistrazio-egintza guztien konstantzia dago, Departamentuak dauzkan bitarteko pertsonal eta materialak behar adinakoak edo egokiak ez direla, edo horiek gehitzea komenigarria ez dela agertzen duen txostena izan ezik, zeina, kasu honetan, inplizituzat jo daitekeen, Herrilan Departamentuari dagokionean, egin beharreko lanak oso espezializatuak baitira. Ez, ordea, Vianako Printzea Erakundeari dagokionean, zeren, printzipioz, txostena egin beharra baitauka, Nafarroako Gobernuaren Erabakiaren arabera.

AKPOak badauzka 161/91 Foru Dekretuko 8. artikuluko galdatutako gutxieneko edukiak. Dena den, obra-kontratueterako AKPO-eredu bat da, eta ez da egokia alderdien eskubide eta betebeharrak zehazteko esku artean dugunaren izaerako kontratuen kasuan.

Esleipena zuzenean egin zen, 161/91 Foru Dekretuko 10 a) eta b) artikuluko baldintzak betetzen zirelako. Kontratua epe barruan formalizatu zen, eta ezarritakoari jarraituz egin zen fidantza. Behin-behineko harrera-aktaren eta esleipenaren zenbatekoa ordaindu izanaren konstantzia badago.

### VI.4. BELATEKO MENDATEA ERAIKITZEKO PROIEKTUA

Onetsiriko Arraizko Bentak-Doneztebe trazadura-proiektuak bi eraikuntza-proiektu erakarri zituen Arraizko Bentak eta Legasako lotunearen artean:

- Arraizko Bentetatik Zozaiarako eraikuntza-proiektua.

Proiektu hau kontratatzekeo espedientea 1992ko urrian onetsi zen. Lehiaketa-sistemaren bitartez Euroestudios-i esleitu zitzaion, aurretiazko onarpenik gabe, 74.546.250 pezetatan (ehuneko 12,3ko beherapena).

1994ko urtarrilean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean, honako proiektu honen onespeneren berri eman zen: "Belateko mendatea eraikitzea; zatia: Arraizko Bentak-Zozai". Ukituriko ondasun eta eskubideen berri jendaurrean eman zen. Proiektu horren kontratazioari buruzko administrazio-espedientea ez zaigu utzi. Kontabilitate bidez erregistraturiko ordainketak 74,5 milioi pezetakoak dira.

Esan beharra dago kontratua formalizatzekeo erabilitako administrazio-dokumentua Kontuen Ganbarako artxiboetan dagoela, Administrazio Kontratazioarako Batzordeak bidalia denez gero, Kontratuari buruzko Foru Legeko 4.4 eta 132.2 artikuluko betez. Lan honetan aztertutako kontratu guztietatik Ganbara honetako artxiboetan erreferentzia daukan bakarra da kontratu hori.

- Zozaiatik Donezteberako trazadura-proiektua.

1831/1995 Foru Aginduaren bidez onetsi zen Belateko mendaterako trazadura-proiektu bat prestatzeko administrazio-espeditentea; Zozaiadoneztebe zatirako, hain zuzen. Proiektu hori ez da gure lanaren arretagai. 1995eko azaroan esleitu zitzaion V.S. Ingeniería y Urbanismo, Francisco Jiménez y Geocontrol S.A. enpresari, 31.030.000 pezetako zenbatekoarekin.

#### VI.5. BELATEKO MENDATERAKO ERAIKUNTZA-PROIEKTUA ZATITAN BANATZEA

Zozaiadoneztebe zatia eta Mugairiko saihezbidea hasierako proiektutik kanpo utzi ondoren, ikusi dugunez, proiektuak oraindik beste aldaketa bat jasango du; alegia, lau eraikuntza-proiektutan zatituko da eta tunela eraikitzeko proiektua gehituko da; horren helburua horietako bakoitza banaka lizitatu eta esleitzea da.

Martxoaren 21eko 64/94 Foru Dekretu bidez, lau obra-proiektuk ukituriko ondasun eta eskubiak onura publikoak eta premiazko okupaziozko zatik deklaratu dira. Nafarroako Gobernuak data horretan bertan hartutako erabaki batek baimena ematen dio kontseilariari lau obra-kontratuak sinatzeko.

Martxoaren 31ko 279/94 Foru Agindu bidez zati-zehaztea onetsi zen honako lau zatiotan:

- 1. zatia, 2,080 kp-tik 7,780 kp-raino. Belateko tunela.
- 2. zatia, 7,780 kp-tik 10,620 kp-raino. Almandozko tunela.
- 3. zatia, 10,620 kp-tik 13,240 kp-raino. Almandozko saihezbidea.
- 4. zatia, 13,240 kp-tik 15,469 kp-raino. Berroeta-Zozai.

Jatorrizko proiektu bateratua elkarri lotu gabeko lau proiektutara egokitzeko beharrezkoak izan diren aholkularitza-lanei buruzko inolako administrazio-espeditentirik ez zaigu eskaini. Kontabilitateak erregistratu duenez, Euroestudios-i 8.461.642 pezetako balioa duten ordainketak egin zaizkio.

#### IV.6. BELATE ETA ALMANDOZKO TUNELAK GOI-TENTSIOKO ENERGIA ELEKTRIKOZ HORNITZEKO PROIEKTUA.

Kontraturiko azterlanaren xedea da eraikuntza-proiektu gisa definitzea honako instalazio hauek burutzeko beharrezkoak diren obra guztiak:

- Goi-tentsioa hartzeko lineak, konpainia hornitzaileek zehazturiko puntutik, babes eta neurketa-rako beharrezkoak diren gailuak barne.

- Transformazio guneen garapen elektrikoa eta obra zibilekoa, baita ekipo elektrogenoetarako gordetako eremuari dagokionean ere.

- Goi-tentsioko lur azpiko hartuneak, guneen artekoak.

Kontratazio-espeditentea 161/91 Foru Dekretuak xedatutakoari egokitzen zaio, Departamentuak dauzkan bitarteko pertsonal eta materialak behar adinakoak ez izatea, egoki ez izatea edo horiek gehitzea komenigarria ez izatea justifikatzen duen txostenari dagokionean izan ezik, horrelakorik ez baitago, ohi denez.

Esleipena zuzenki egin da, hiru enpresari kontsulta egin ondoren, aipaturiko foru dekretuko 10.1.a) eta 10.2 artikuluek diotenari jarraituz, aurrekontua kasu honetan 10 milioitik beherakoa denez gero. Esleipena egiteko proposamen-txostena ez dago behar bezala arrazoitua. Hala ere, proposamena hobekien dokumentaturikoa eta merkeena den eskaintzari egin zaio.

Kontratua epe barruan formalizatu da, eta AKPOak ezarritako zenbatekoa daukan bermea jarri zaio.

AKPOak esleipen-hartzaileari eskatzen dizkion dokumentuen konstantziarik ez dago espeditentean; alegia, honako dokumentu hauena: ordezkariaren nortasun, identitate eta ahalduzkoaren frogagiriena eta unean uneko zerga- nahiz gizarte-betebeharrak bete izanaren ziurtagiriena.

Kontratuaren exekuzioak ez du inolako aldaketa edo desbiderapenik jasan esleipenarekiko.

#### VI.7. TUNELETAKO INSTALAZIOEI BURUZKO PROIEKTUA

Tunela eraikitzeko proiektua 1990ekoa da, eta instalazioei buruzko azpiproiektu bat zeukan barnean. Idatzi zenetik igaro den denbora dela-eta, beharrezkoa da hori gaurkotzea eta Almandozko tunelean beharrezkoak diren instalazioekin integratzea, tunelei buruzko nazioarteko araudiak gero eta eskakizun zorrotzagoak dituelako eta azken aurrerakuntza teknikoak eduki nahi direlako.

Proiektua egiteko Euroestudios-i egin zitzaion esleipena, modu zuzenean, 1995eko irailean. Zenbatekoa 7,9 milioi pezetakoa izan zen.

1846/96 Foru Agindu bitartez, proiektua tekniki onetsi zen. Horri buruzko administrazio-espeditentea ez dugu eskura izan. Kontabilitateak hain-

bat ordainketa dauzka erregistratuta. Horien zenbatekoa 7.900.000 pezetakoa da.

### VI.8. LANDAREZTATZEARI BURUZKO PROIEKTUA

Landareztatzeari buruzko proiektua Belateko mendatea eraikitzekeko proiektuaren zati bat zen. Obra egitean, komenigarriagozat jo zen hainbat obra-unitate banantzea, azpizati bakoitzaren esleipen-hartzaileek egin zituzten. Horregatik, Departamentukoa den Ingurua Zaintzeko Atalako proiektu berria taxutu zuen, aldaketa horiek jasoz.

Azterlan eta proiektuei buruzko epigrafe honetako **ondorio gisa**, oro har, azterturiko espedienteak euren arau eraentzaileari egokitzen zaizkiola esan behar da (arau hori ezberdina da, esleipen-

data zein den), horren salbuespena izanik, ohi den bezala, Departamentuak dauzkan bitarteko pertsonal edo materialak behar adinakoak edo egokiak ez direla edo horiek gehitzea komenigarria ez dela frogatzen duen txostenik, kontratua hirugarren batzuekin egiteko beharra agerian utziko duenik, ez dagoela.

### VII. OBRA

Jarraian agertzen den koadroak adierazten duen bezalaxe, 8 kontratu aztertuko ditugu: Belateko tunela eraikitzea, bi tuneletan beharrezkoak diren instalazio konplexuak, 1. zatia (Arraizko Bentak-Zozaia) eraikitzekeko proiektua banatzearen ondoriozko 4 azpizatiak, Almandozen obra osagarrien proiektu bat burutzea eta landareztatzeari buruzko proiektua burutzea.

	Belateko tunela	Tuneletako instalazioak	Arraizko			Bentak / Zozaia		Landareztatzea
			1. zatia	2. zatia	3. zatia	Obra osagarriak	4. zatia	
Lizitazio-aurrekontua	3.914.653.032	1.237.088.866	496.059.416	2.572.101.031	1.635.975.377	38.002.487	687.681.806	139.048.845
Esleipen-aurrekontua	2.872.728.981	923.115.712	389.902.701	1.929.075.773	1.309.697.214	29.865.784	522.397.486	139.048.485
Beharpen-portzentaia	26,62	25,38	21,40	25,00	19,94	21,41	24,03	0,00
Hornidura berezia					157.743.219			
1. prezio-aldak	180.561.572	38.975.374	44.771.120	176.398.080	210.454.745		25.701.376	
2. prezio-aldak	158.009.497	39.964.322	0	353.167.206	334.078.320			
3. prezio-aldak	542.076.876		0		0			
4. prezio-aldak	125.516.139				51.285.402			
5. prezio-aldak					-23.672.355			
6. prezio-aldak					38.897.634			
Behin-behineko azken likidazioarekin batera eginiko aldaketa	145.082.006		43.378.088	88.351.687	169.580.511	1.879.619	19.669.990	
Behin betiko azken likidazioarekin batera eginiko aldaketa					31.180.110		1.046.513	
Aldaketa, guztira	1.151.246.090	78.939.696	88.149.208	617.916.973	811.804.367	1.879.619	46.417.879	
Aurrekontu bateratua	4.023.975.071	1.002.055.408	478.051.909	2.546.992.746	2.121.501.581	31.745.403	568.815.365	139.048.485
Ohiko ziurtagiriak	3.889.709.617	992.867.649	474.460.690	2.531.958.691	2.109.705.238	31.745.403	565.029.396	139.048.286
Prezio-berrikuspen ziurt.	299.834.233		13.674.281	46.503.783	30.886.254	0	8.564.566	
BEZ aldaketa	24.542.187		3.591.219	15.034.055	11.796.144	0	3.785.969	
IBerandutza-interesak	1.249.044							
Ordainketak, guztira	4.215.335.081	992.867.649	491.726.190	2.593.496.529	2.310.130.855	31.745.403	577.379.931	139.048.286
% ziurtatua/esleitua	135,40	107,56	121,69	131,25	161,08	106,29	108,16	100
% ordainketa/esleitua	146,74	107,56	126,12	134,44	176,39	106,29	110,53	100
Esleipen-modua	Concurso	Concurso	Concurso	Concurso	Concurso	Subasta	Concurso	Encomienda
Esleipen-data	21.05.93	12.12.96	04.07.94	04.07.94	04.07.94	17.02.97	04.07.94	20.10.95
Esleipen-hartzailea	Lain-Auxini-Posusa	Dragados-Sice-Eserma En ejecución	Padenasa	Obras Subterráneas-Alvargonzález	Construcciones Mariezcurrena	Construcciones Mariezcurrena	Iruña-Padenasa Azpíroz y S. Alaiz-Biurrun	Viveros y Repoblares.

Beste kontratu bat geratzen da, "N-121-A Iruña-Behobia errepidean, Belateko mendateko tunel arteko inguruan, lurrerauzketa-ezponda egonkortzea", "Construcciones Mariezcurrena"ri 50 milioi pezetatan esleitua. Kontratu hori ez dugu eskura izan. Herrilan Zuzendari Nagusiaren Azaroaren 25eko 1229/1997 Erabaki bidez, 4,4 milioi pezetako gehiegizko gastuak eta 54,4 milioi pezetako likidazioa onetsi ziren, eta hori ordaintzea agindu zen. Ordainketa hori bat dator kontabilitatean erregistraturiko ordainketekin.

III. zatiari buruzko espedientearen zati batzuk besterik ez zaizkigu helarazi; horrela, ba, ezin dugu iritzirik agertu kontratazio-espedienteaz, esleipen-faseaz eta lehen bi aldaketaz. Eginiko prezio-berrikuspenak araei egokitzen zaizkien ere ezin dugu egiaztatu.

0 zatiari (Belateko tunela) dagozkion kontratazio-espedientea eta esleipen-fasea ez ditugu aztertuko, Ganbara honek horiei buruzko txosten bat jadanik egina baitu.

#### VII.1. KONTRATUEN XEDEA

Belateko tunelari eta I.tik IV.era bitarteko zatiei dagozkien kontratuak duten xedea hau da: kasuan kasuko proiektuan zehazturiko eraikuntza-obra burutzea. Obra horiek jadanik deskribatuak izan dira, proiektuez aritzean. 1. zatia deiturikoak xede du, alde batetik, 0 zatiko lanak bukatzea (zati hori Belateko tunela eta horren sarbideak eraikitzeari dagokio), eta, bestalde, N 121 errepidea Arraizko Bentak eta gurutzearen bihurtzearen artean hobetzea. Lan hauek tuneleko obren esleipenean sartu gabeko bidezorua osatzean dautza, eta barnean hartzen dituzte, baita ere, errematea, seinaleztapena balizatzea, hesi-jartzea eta beste hainbat lan.

"Almandozko obra osagarriak" deiturikoak Bide Zerbitzuak taxuturiko eta horrelaxe deituriko proiektu bat burutzen du, eta, funtsean, honako honetan datza: Almandozko zeharbideko bi zati egokitzean, Berroako bidea Berroetako bidegurutzetik aurrera hobetzean, Libuseko bidea hobetzean, Almandozko hondakindegia inguruan hesiak jartzean, bi abere-pasabidetan kanadiar langak ipintzean eta Almandozko errepide zaharrean aparkaleku bat eraikitzean.

Beraz, obra horiek osagarriak edo akzesorioak dira, eta Administrazioak, proiektua burutzean, obra horiek egiteari egoki deritzo, esleituriko proiektuaren barruan ez dauden arren (Kontratuei buruzko Foru Legeko 56.4 artikulua). Aipaturiko artikulua aplikatuz, bakoitzerako kontratu bana egin behar da, eta horrelaxe egin da, egin ere.

Landareztatze kontratuaren xedea Ingurugiro Zaintzeko Atalak eginiko proiektu bat burutzea da. Proiektu horrek hasieran onetsitakoa, I. zatia - Arraizko Bentak-Zozaiak- eraikitzeko proiektuan sarturikoa, aldatzen du, horretatik lur begetala lortu eta hedatzeko unitateak kendu ondoren, egokiagotzat jo delako hori burutzea obra nagusiaren esleipen-hartzaileek ezpondak eta lubetak egitearekin batera, I.tik IV. zatira bitarteko kontratuei eginiko aldaketan artean sartuz. Proiektuaren gainontzekoaren ardura, ordea, "Viveros y Repoblaciones" sozietate publikoari eman zaio. Kontratistei kontzeptu horretan esleituriko zenbaitakoak 52,2 milioi pezetakoak dira.

Tuneletako instalazioetarako kontratua dagoen proiektua burutzera mugatzen da. Proiektuak hauxe aurreikusten du:

1.- Tuneletako barne-ekipamendua: argitapena (normala, osagarria, larrialdikoa eta suteetarakoa), luzera-aireztapen bortxatua, suteak, kutsagaiak eta lainoa detektatzeko sistemak, irrati eta megafonia bitartez komunikatzeko sistemak, suteak itzaltzeko sistemak, SOS armairuak segurtasun-ekipamenduz hornituriko barrunbeetan, telebistaren bitartezko eta gertakariak detektatzeko sistemen bitartezko zainketa, larrialdi-kudeaketa eta ibilgailuen abiadura neurtzeko sistemak.

2.- Tuneletako kanpo-ekipamendua: galtzadako argitapena, SOS zutoinak, semaforoak, telebista-kamera mugikorak, seinale aldagarrietarako taulak, lainoaz eta gainazal irristakorrez ohartaraztea, meteorologia-zentroak, galibo-kontrola, sistema elektrikoak eta instalazio elektriko osagarria aurreko ekipamenduarentzat.

3.- Obra zibila: Kontrol-eraikina (2 solairu), urbiltze eta -dekantatzea, ura biltzeko uharka. Ura saneatu eta araztea, suteak itzaltzeko zentral hidrikoa, aparkalekua, espaloiak jartzea, lorategiz hornitzea, obra zibil osagarria (luebakiak, margoa, iragazkaizketak).

4.- Kontrol guneko ekipamendua: seinaleztapen- eta kontrol gunea, gertakariak detektatzeko gunea, SOS ordenagailu eta kontrolatzailea, trafiko eta zerbitzu guneen kontrolatzailea, mikrofonía, telefonia, sute-detektatzailea eta abar.

#### VII.2. KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAK

Ez dugu Belateko tunelari buruzko espedientea aztertuko, Ganbara honek jadanik txosten batean azertua baitauka.

Belateko Mendateko landareztatze-kontratuan Kontratuei buruzko 13/86 Foru Legeko 2d) artikulua aurreikusitakoa betetzen da; horrek, araua-

ren aplikazio-eremutik at uzten ditu Foru Komunitateko Administrazioaren eta zuzenbide pribatuko sozietateen arteko harremanak baldin eta sozietate horien kapitalean gehiengoa badu Foru Komunitatearen partehartzeak. Halaxe gertatzen da "Viveros y Repoblaciones" en kasuan.

Kasu honetan espedientean agertzen da Nafarroako Gobernuaren Erabaki bidezko baimena, zeina obligaziozkoa baita, gastua urte anitzekoa denez gero; baita ere, sozietate publikoari eginiko eskakizuna, eskaintza bat egin dezan, "lanaren ezaugarriak eta burutzeak dituen berezitasunak kontuan edukiz"; sozietate horrek bidalitako aurrekontu xehekatu bat, aurrekontu-krediturik izatearen ziurtapena eta proposamena onartzen nahiz lanen ardura ematen duen foru agindu egokia ere.

Era berean, Ingurugiroa Zaintzeko Atalak txostena egin ondoren ordaindutako zortzi ziurtapenen konstantzia badago. Lanak zuzentzat eta gogobetegarritzat jo ziren. Ordainduriko guztizkoa aurrekontuaren hainbestekoa da.

Beraz, espedientea zuzena da termino guztien ikuspegitik.

Gainontzeko kontratuei dagokienez, espedientean Kontratuei buruzko Foru Legeak eskaturiko egintza guztien konstantzia dago: Nafarroako Gobernuaren Erabakia, zeina obligaziozkoa baita, hala zenbatekoarengatik nola gastuaren urte anitzeko izaerarengatik, AKPOa, txosten tekniko, juridiko eta kontuhartzaitzakakoak, zuinketari eta obraren bideragarritasunari buruzko akta eta kontratazio-organoaren erabakia, eginikoa onetsi eta esleipen-fasea has dadila xedatzen duena. Foru agindu hori kasu guztietan argitaratu da NAO n. 2. zatiari eta instalazioetarako kontratuari dagokienez, Europako Komunitateko Aldizkari Ofizialean eginiko argitarapenaren konstantzia badago.

- AKPOa.

Aztertutako kasu guztietan, Estatuaren Kontratazioari buruzko Erregelamendu Orokorreko (EKE) 82. artikulua ezarritako gutxienezko edukia-ri egokitzen zaio. Artikulu hori ordezkotzat moduan aplikatu daiteke, erregelamendu bidezko berezko garapenaren ezean, esleipen-irizpideak finkatze-ari dagozkion hainbat salbuespenekin, jarraian azaltzen denez:

- Esleipen-irizpideak.

AKPOan I., II. eta IV. zatietarako ezarritako esleipen-irizpideak (baita, logikoa denez, III. zatirako, zeina ezagutzen ez baitugu) literalki kopiatzen dituzte 0 zatia-ri, hau da, Belateko tunelaren, kontratazioan ezarritakoak. Alegia:

1.- Eskaintzako aurrekontua.

2.- Eskaintza eta alternatibak.

3.- Burutze-epea.

4.- Esperientzia eta enpresa-gaitasuna (obraburuaren esperientzia eta titulazioa, lan-taldearen, makineriaren eta laguntzako bitartekoen gaitasuna eta egokitasuna).

5.- Enpresa egokia izatea, obraren ezaugarri teknikoak eta berori noiz eta non egingo den kontuan hartuz.

Irizpide horiek besterik gabe aipatzeak, hau da, guztizko puntuazioan zer nolako garrantzi erlatibo duten adierazi gabe, zehazgabetasuna ekartzen du.

Dena den, AKPOaren akats hori ondorioz gabekoa da, Departamentuak beranduago agerturiko jarduteko modua dela-eta:

Lau zatietarako lehiaketa iragartzean -iragarpen hori 1994ko maiatzaren 9ko NAOan, 55 zk. koan, hain zuzen, argitaratu zen-, interesdun guztiei deialdia egin zitzaion 1994ko maiatzaren 30ean egitekoa zen informazio-bilera baterako, hau da, eskaintzak aurkezteko epe-muga baino lehenago egitekoa zen bilera baterako.

Bilera hori egin aurretik, Herrilan Kontseilariak jarraibideak eman zizkien zati bakoitzeko obraren zuzendaritza izango zuten atalburuei, Departamentuak alde aurretik finkaturiko esleipen-irizpideen kopuruzko gauzatzea ezar zezaten. Aipaturiko bilera egin aurretik eman zioten kontseilariari horren berri.

Bitartean, Nafarroako Gobernuak, 1994ko maiatzaren 16ko Erabakiaren bitartez, kontratu publikoak esleitzeko hainbat arau ezarri zituen. Bigarren idaztan adierazten zuenez, "Administrazio-klausulen orriek lehiaketa esleitzeko erabilitako irizpideei ematen zaien portzentaia-balioa ezarri beharko dute". Hori bat dator Administrazio Publikoaren Kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/95 Legeko 87.2 artikulua urtebete beranduago ezarriko zuenarekin; hau da, esleipenerako oinarri gisa erabili behar diren irizpide objektiboak garrantzi handienetik txikienerako hurrenkeran eta ematen zaien haztapenaren arabera adieraziko direla AKPOan.

Aktatik ondorioztatzen denez, aipaturiko informazio-bilera horretan, zeina bateratua baitzen lau azpizatietarako, hainbat gai (enpresaren esperientzia, ahalmen eta egokitasunaren arteko desberdintasuna kasu, hiru horiek anbiguoak baitira AKPOan, aipatu dugunez) mahaigaineratzearekin



batera, lizitazioak arautuko dituzten irizpideak aldeztatik azaltzea gai garrantzitsua da.

Eskaintza ekonomikoa balioesteko formularen berri nahiz AKPOan ezarritako irizpide bakoitzak guztizko puntuazioaren gain duen portzentaiazko partehartzearen berri jendaurrean eman zen, eta bertaratu zirenei kopia eman zitzaion. Halaber, bertaratu zirenei adierazi zitzaion irizpide orokor bakoitza osatzen duten atalak balioesteko metodologia egina eta itxia zegoela, eta kasuan kasuko kontratazio-mahaiko lehendakariak gordetzen zuela, eskaintza ekonomikoak egingo ziren egunean bertan jendaurrean irekitzeko.

**Ondorio gisa**, adierazi beharra dago ezen irizpideetako bakoitzari esleituriko portzentaiazko zehaztu eta horien berri publikoki -eskaintza ekonomikoa balioesteko erari buruzko xehetasunezko azalpen eta guzti- eman zen aurretiazko bilkurak, batetik, eta eskaintzak jaso aurretik gainontzeko irizpideak balioesteko metodologia ezartzeak, bestetik, hauxe egiten dutela:

1.- AKPOan irizpideak zehaztu eta haztatu gabe daudenez, hori konpontzen dute.

2.- Zerbitzu teknikoek egin beharreko eskaintzen ebaluazioa diziplinapetzen dute.

3.- Lehiatzaileei ahalbidetzen diete euren eskaintzaren egokitasuna aldeztatik ebaluatzea.

4.- Hala behar denean, beranduago kontrola egitea errazten dute.

Zati bakoitzerako honakoa da irizpide bakoitzaren portzentaiazko balioespena:

	I. zatia: %	II. zatia %	III. zatia: %	IV. zatia: %
1.- Proposamen ekonomikoa	40	40	40	40
2.- Eskaintza eta alternatibak	20	20	20	20
3.- Burutze-epea	5	10	5	5
4.- Esperientzia-gaitasuna	10	10	10	10
5.- Enpresa-egokitasuna	25	20	25	25
Guztira	100	100	100	100

“Almandozko obra osagarriak” kontratua enkante bidez esleitu zen; hori dela-eta, prezioa da esleipen-irizpide bakarra.

“Tuneletako instalazioak” kontratuak, aurreko horien ondorengoa baita, AKPOan bertan ezartzen ditu esleipen-irizpideak, xehekatuak eta zenbatetsiak, balioespen-metodologiari buruzko azalpenak eta guzti. Kontseilariaren idazki bidez ezarri ziren.

	Portzentaia
Prezioa	40
Eskaintzaren balio teknikoa:	
Sistemen, trazaduren eta abarren alternatibei buruzko azterlan teknikoak	10
Birkontratatuen zerrenda, markoak edo ereduak	10
Abiarazteko plana, probak eta instalazio bakoitzari jarraipena egiteko plana	10
Kontratatuen kalitatea ziurtatzeko barne-plana	5
Mantentze-arduradunei irakatsi beharreko prestakuntza-ikastaroaren deskribapena	5
Guztira	40
Burutze-epea (murriztapenak balioesteko baldintzak adierazten ditu)	5
Instalazioa erabiltzearen kostuari buruzko azterlana	5

Beraz, esan daiteke Departamentuak, I.tik IV.erako zatia lizitatuz geroztik, ahalegina egin duela egin beharreko lehiaketan esleipen-irizpideak objektibatzeko eta iragartzeko, iraganeko zehazgabatasunak gorabehera. Ahalegin horrek jarraipena izan du 1997ko uztaila arte.

Azaroaren 28ko 3591/96 Foru Agindu bidez (1997ko urtarrilaren 10eko 15.zk.ko NAO) “Obra kontratuetan erabili beharreko prozedurei eta esleipen-erri buruzko jarraibideak” argitaratu ziren. Horiek, enkantea zein kasutan erabili behar den xedatzeaz gain, modu orokorrean ezartzen dituzte esleipen-irizpideak, zenbatetsita, eta xehetasunez adierazten dute horiek aplikatzeko metodologia. Metodologia hori erabili beharko da 1996ko abenduaren 1etik aurrera izapidatzen hasiko diren kontratazio-espeditze guztietan. Irizpide horiek taxutzen dituzten printzipioak hauek dira: eskaintzaren balio teknikoa -buruturiko antzeko obren aurrekontuen baturaren arabera neurtua-, enpresek Nafarroan egitura egonkorra edukitzea -teknikari, langile eta makineria eta instalazio finkoen arabera balioetsi ondoren-, eskaintza ekonomikoa -eskaintza baxuegiak murriztea du horrek helburu-, eta, azkenik, kalitatea lehenesten da, kalitate-arauetan ziurtagiria daukaten enpresak espreski balioetsiz.

1997ko martxoaren 3ko 27. zk.ko NAOan argitaratutako otsailaren 25eko 1078/1997 Foru Agindu bidez, hauxe adierazten da: “Gai hau berriz aztertu ondoren ikusi da beharrezkoa dela aldatu eta hein batean indargabetzea (aurreko foru agindua), obra kontratuak esleitzeko ebazpenen kontra gerora egin daitezkeen helegiteak, besteak beste, saihestearren, zeren eta Departamentuaren funtzionamenduari nahasmendua ekar bailie-zaiokete”. Praktikan, osoki indargabetzen da, honako puntu hauei dagokienean izan ezik:

eskaintza ekonomikoaren kontsiderazioa eta kalitate-ziurtagiriari emandako puntuazioa, azken horren balioespenak nabarmen egin baitu gora.

Uztailaren 4ko 91. zk.ko NAOan argitaratutako 3016/1997 Foru Agindu bitartez irizpideak objektibatzeke ahalegina burutzen da, hauxe adierazten baitu: "Prozeduretan izandako esperientziek frogatu dute komeni dela adjudikazioetarako beste irizpide batzuk ezartzea". Horregatik, aurreko foru agindu osoa indargabetzen du.

### VII.3. ESLEIPEN-FASEA

Ez dugu aintzat hartu Belateko tunela eraikitzeke kontratuaren esleipena, Ganbara honek egin baitauka jadanik horri buruzko txosten bat.

Espediente guztietan agertzen da kontratazio-mahaiaren izendapena, legeak eskatutako osakerak duela; baita kasuan kasuko harrera-aktak, zuzenketa-aktak -hala behar badu- eta proposamen ekonomikoak irekitzeko aktak ere.

Espediente bakar batean ere ez da agertzen lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentuen zerrendaren ziurtagiria; kontratazio-mahaiko idazkariak luzatu behar du hori, Kontratuei buruzko Foru Legeko 34. artikulua dioenaren arabera -hori enkanteari aplikatzeko da, baina aplikazio hori lehiaketara ere heda daiteke, Kontratuei buruzko Foru Legeko 40. artikulua dioenez-.

Oro har, espedienteetan ez da agertzen lizitatuzaileek aurkezturiko dokumentazioa, zuzenketa-rako epean ekarritakoa izan ezik -hala denean-, zeren eta, legediak baimentzen duen bezala, lehiatzaileek, lehiaketa ebatzi ondoren, ekarri dituzten dokumentuak berriro har baititzaizkete. Horrek esan nahi du eginiko lanak muga bat daukala, ezin baitugu egiaztatu AKPOan ezarritako betekizunak betetzen direnik, ezta enpresa bakoitzari emandako puntuazioa gainbegiratu ere.

Kasu guztietan, Herrilan Kontseilariak esleipena egin dio Bide Zerbitzuak bere proposamen-txostenean onuragarrien jo duen eskaintzari.

#### VII.3.1. Enkantea

"Almandozko obra osagarriak" deritzen kontratua enkante bidez esleitu zen. Lizitatu ahal izateko eskaturiko dokumentuei dagokienez, bakarrik esleipen-hartzaile gertatu zenaren dokumentuen konstantzia dago espedienteetan; gainontzeko lizitatuzaileen dokumentuen konstantziarik ez dago.

Batez besteko beherapena ehuneko 5,63koa izanik, eskaintzarik onena zuzentzigabetzat jo daiteke, ehuneko 21,41ekoa baita. Hori ikusirik, 36.3 artikuluko aurreikuspenak bete ziren: lizitatuzaileari

entzutea eman zitzaion eta obrako zuzendaritzari txosten teknikoa eskatu zitzaion, eta proposamena normalki bete zitekeela jo zen. Kontratua burutu zenean, haren gastua ehuneko 6,2 handiagoa izan zen; beraz, benetako beherapena, kontratua burutu delarik, ehuneko 16,46koa izan da.

#### VII.3.2. Lehiaketa

I., II. eta IV. zatiei dagozkien obra-burutze kontratuak eta tuneletako instalazioei dagokiena lehiaketa bidez esleitu ziren.

Espedienteetan badago, horietarako guztietarako, proposamen-txosten xehekatu bat, zeinak eskaintza bakoitza alde aurretik ezarritako irizpideei jarraituz aztertzen baitu.

Obra bakoitzerako alde aurretik ezarritako esleipen-irizpideen berri eman da jadanik. Horien artean bereiz daitezke, alde batetik, tuneletako instalazioetarako kontratuari dagozkionak eta, bestetik, hiru zatietako obra-kontratuaren esleipena arautzen dutenak, zeinak askoz ere homogenea-goak baitira elkarren artean.

##### • Tuneletako instalazioen esleipena

Proposamen-txostenak azpimarratzen duenez, aurkezturiko eskaintzen kalitatea oso antzekoa eta goi-mailakoa da; horregatik, enpresa guztiek jasotako puntuazioa ere oso antzekoa da. Azken batean, kontratu hori esleitzerakoan, oinarritzko irizpidea prezioa izan da.

##### • I., II. eta IV. zatietako obraren esleipena

Aurrez ezarritako irizpideak oso antzekoak diren arren, horiek modu ezberdinean aplikatu dira zati bakoitzean. Irizpideetako atalik eztabai-dagarrienean, alegia, "Enpresa obrari egokitua egotea" deritzonean, I. eta IV. zatietan lehentasuna enpresa txikiei eta erregio-esparrukoiei eman zaie; II. zatian, ordea, lehentasuna nazio-esparruan jarduten duten enpresa handiei eman zaie, obraren garrantzia kontuan hartuz. Garrantzi hori honela dago neurtuta: 2. zatia dagokiona 2572 milioikoa da (Almandozko tunela barne); I. eta IV. zatiei dagokienean, berriz, gehieneko lizitazio-aurrekontua 496 eta 687,6 milioikoa da, hurrenez hurren.

I. eta II. zatietan, "Enpresa obrari egokitua egotea"ren azpiirizpideak balioetsi gabe ere (a priori, badirudi horiek direla balioespen subjektiboenekoak), puntuaziorik altuenek enpresa berberena izaten segituko zuten.

Hala ere, IV. zatian, badirudi enpresa obrari egokitua egotearen irizpidea esleipen-hartzaileak lorturiko puntuazioan erabakigarria izan dela.

## VII.4. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Azterturiko espediente guztietan (I., II. eta IV. zatiak, tuneletako instalazioak eta Almandozko obra osagarria), honako hauen konstantzia dago:

Zuinketa egiaztatzeari buruzko akta, behar den epean formalizatua, erreserbarik gabe, IV. zatiari dagokiona izan ezik (horretan linea elektriko baten eta Oronoz-Mugairiko ur-hornidurako hartunearen afekzioak adierazten baitira). Azken horren ondorioz, beranduago kontratua aldatu egingo da.

Kasu guztietan, kontratua administrazio-dokumentu bidez formalizatua izan da, legezko epearen barruan. Kontratuen edukia EKEko 21.2 artikuluan ezarritako edukiaren arabera da.

Kontratuaren exekuzioa AKPOan ezarritako zenbatekoan bermatua edukitzearen frogagiria erantsita daukate espediente guztiek.

II. zatiari buruzko espedienteetan ez da esleipen-hartzailearen nortasunari eta horren ordezkariaren ahalduzteari buruzko dokumentaziorik agertzen. Dokumentazio hori AKPOak eskatzen du.

Kasu guztietan, esleipena NAOan argitaratu da.

## VII.5. KONTRATUAK BURUTZEA

Epigrafe honen idazpuruan dagoen koadrotik ondorioztatzen denez, esleituriko aurrekontua kontratu guztietan gainditu da. “%, ziurtatua/esleitura” lerroan ziurtatu gisa ulertzen dugu hileroko ziurtapen arruntek osatzen duten guztizko kopurua, BEZ tasen aldaketaren ondoriozko ordainetak kendu ondoren –horiek, logikoa denez, ez dute obraren gehikuntza izan denik esan nahi–, eta, baita ere, III. zatiari dagokionean, hornidura berezia kendu ondoren, zeinak ez baitu, legearen arabera, “aldaketa” kalifikaziorik. Proiektuan kopuruari dagokionez zehazten zail diren obra-unitateek erakar dezaketen prezio handiagoa ordaintzeko erabiliko da.

Ondoko koadroan, ziurtaturiko zenbatekotik (BEZaren aldaketa kontuan hartu gabe) haxe kendu dugu: landareztatze proiektuaren exekuzioan hasieran sarturiko obra-unitateak gehitzeak I.tik IV.erako zatientzat osatzen duen zenbatekoa. Izan ere, horrek ez du esan nahi gastua handiagoa denik, baizik eta horiek egin dituen kontratistaren aldaketa izan dela; horrela, adierazitako portzentaia lortuko ditugu.

	Lizitazio-aurrekontua	Esleipen-aurrekontua	Beharpena	Ziurtapen arruntak	Landareztatzea, banantzea	Lizitazioaren g/ portzentaia	Esleipenaren g/ portzentaia
Belateko tunela	3.914.653.032	2.872.728.981	26,62	3.889.709.617		99,36	135,40
Arraizko Bentak-Zozaia, 1. z.	496.059.416	389.902.701	21,40	474.460.690	7.862.272	94,06	119,67
Arraizko Bentak-Zozaia, 2. z.	2.572.101.031	1.929.075.773	25,00	2.531.958.691	5.375.367	98,23	130,97
Arraizko Bentak-Zozaia, 3. z.	1.635.975.377	1.309.697.214	19,94	2.257.287.916	21.956.685	136,64	170,68
Arraizko Bentak-Zozaia, 4. z.	687.681.806	522.397.486	24,03	565.029.396	15.033.609	79,98	105,28
Almandozko obra osagarriak	38.002.487	29.865.784	21,41	31.745.403		83,54	106,29
Tuneletako instalazioak	1.237.088.866	923.115.712	25,38	992.867.649		80,26	107,56
Landareztatzea	139.048.845	139.048.485	0,00	139.048.286		100,00	100,00
Guztira	10.720.610.860	8.115.832.136	24,30	10.882.107.648	50.227.933	101,04	133,47

Nabarmena da esleipeneko batez besteko beharpen-portzentaia altua, ehuneko 24,3koa, nahiz eta kontratu bakoitzean eginiko aldaketek hori eraginik gabe uzten duten.

Era berean, begi-bistakoa da kontratuetan eginiko aldaketen ondorioz izandako batez besteko gastu-gorakada ehuneko 33,5koa dela esleipen-aurrekontuen gainetik. Ildo horretatik, deigarri gertatzen dira III. zatiko obrak, portzentaia ehuneko 70,7koa baitaukate; ziur aski, portzentaia hori igo egin beharko da “tunelen arteko ezponda” kontratuko 54,4 milioiekin. Azken kontratu hori kontratista berak eginikoa da. Bigarrenik, Belateko tunele-

ko obran aldaketek eragin duten gehikuntza garrantzitsua da, ehuneko 35,4koa baita.

Obra-epigrafearen hasieran agertzen den koadroan kontratu bakoitzak jasan duen aldaketa-kopurua adierazten da. Guztira, 24 aldaketa dira. Landareztatze kontratua da esleipen-prezioan burutu den bakarra.

Aipaturikoen gain, azterturiko zenbait kontratuen finantza-araubideak aldaketak jasan ditu, urte bakoitzeko gastu-aurreikuspenak obren burutze-eritmoari egokitu ahal izateko. Horiek guztiak Kontratuei buruzko Foru Legeko 16. artikuluari jarraituz izapidatuak izan dira, eta beharrezkoak

diren administrazio-egintza guztiak espedientean agertzen dira.

Jarraian, kontratu bakoitzeko aldaketak Kontratuei buruzko Foru Legearen (KFL) xedapenei egokituak ote dauden aztertuko dugu.

#### VII.5.1. Kontratuei eginiko aldaketak

Txosteneko 4. eranskinean honako hau agertzen da: aldaketa bakoitzaren edukia eta zenbatekoa, KFLren arabera zein motatako aldaketa den, –hori erabakigarria da onesteko jarraitu behar den izapidatze-motarako– eta aldaketen beharra frogatzeko asmoz Departamentuak aipaturiko kausen laburpen bat.

##### A) "Belateko tunela" kontratuaren aldaketak.

- Izapidatzea.

Aipagai den kontratuak honako aldaketa hauek jasan zituen esleitua izan zenetik: finantza-araubidean bi aldaketa, gastu-gehikuntza eragin zuten lau kontratu-aldaketa (horietako hirutan, gainera, exekuzio-eparearen luzapena ere izan zen) eta bosgarren aldaketa bat, behin-behineko azken likidazioarekin batera eginikoa, aurrekontu bateratuaren gaineko gastu-gehikuntza onesten zuena.

Lau aldaketak Legeak ezarritako betekizun hauek betez izapidatu ziren: kontratistari entzutea ematea, txosten tekniko, juridiko eta kontuhartzaitzakoak egitea, eta, beharrezkoa izan zenean, Nafarroako Gobernuaren Erabakia. Kontseilariak onetsi zituen.

Dena den, fidantzaren doikuntza ez da espedientean agertzen 3. eta 4. aldaketei dagokienean, nahiz eta obligaziozkoa izan, aldaketaren zenbatekoak aurrekontu bateratuaren ehuneko 10 gainditzen duelako.

Behin-behineko likidazioaren gastu-gehikuntza honako honen agerpen da: obra behar bezala burutzean benetan burutu den unitate-kopuruaren eta proiektuko kubikazioetan aurreikusitakoaren arteko aldearen ondorioz soilik gertatzen diren aldaketenak. Horiek, behin-behineko likidazioan sartuko dira, baldin eta erakartzen duten gastu-gehikuntza kontratuko prezioaren gainetik ehuneko 10 baino gehiagokoa ez bada". Ez da beharrezkoa izango izapidatze edo onespren formalik (KFLko 56.3.2. artikulua).

Hirugarren aldaketa 1996ko martxoan onetsi zen, kontratuaren epea bi hilabete lehenago bete zen arren. Horren bitartez, epea 9 hilabete luzatzea baimendu zen, eta kontratuaren epe-muga 1996ko urria izan zedila ezarri zen. Horren zergatia izan zen zerbitzua izapidatzea egiten hasi zela

kontratuan ezarritako epe-muga baino egun gutxi lehenago.

Gauza bera gertatzen da laugarren aldaketarekin: finkaturiko epe-muga bukatutakoan, obrak burutu gabe zeuden. Hiru hilabete beranduago, laugarren aldaketak epea luzatu zuen (3 hilabete, aurreko epe-mugatik kontaktzen hasita), eta epe-muga 1997ko urtarrila izan zedila finkatu zuen. Aldaketa hori onetsi zuen Foru Agindua 1997ko otsailekoa da. Bost hilabete beranduago obrak bukatu ziren arte epearen inolako luzapenik ez zen izapidatu, ezta onetsi ere.

- Edukia.

Obrei buruzko atal honen hasieran agertzen den koardotik ondorioztatzen denez, onetsitako aldaketa-multzoak epea ehuneko 75 luzatzea eta gastua ehuneko 40 gehitzea erakarri zuen.

Hori zela-eta, bai kontuhartzaitzeta delegatuak bai Departamentuko zerbitzu juridikoek serioski zalantzan jarri zuten proiektu teknikoaren egokitasuna eta gainbegiraketa obra burutu aurretik egin izana, eta, hala beharko balitz, proiektuari egoztekoak izan litezkeen balizko hutsune eta eskasien-gatik erantzukizuna eskatu ahal izatea mahaigaineratu zuten.

Kontratazio-organoak proiektu-egilearen balizko erantzukizunari buruzko txostena eskatu zion Departamentuko obra-zuzendaritzari. Obra-zuzendaritzak ez zuen gai horri buruzko iritzirik agertu, eta proiektuko kontratuaren terminoak ezagutzen ez zituela adierazi zuen.

Kontratuko aldaketa guztiek txosten tekniko xehekatuak dituzte euskarri.

Hirugarren aldaketak aurrekontuko hainbat atal murrizten ditu (tunelako kanpo obra eta bertaraino iristeko bidea), eta hertsiki tunelari dagokion atala gehitzen. Horren zenbatekoa lortzen da bateraturiko aurrekontua eta buruturiko obraren balioesperekin elkarrekin konparatuz. Beraz, aurreiazko onesprenik ez duen eta jadanik egin dagoen obra bat erregularizatuko duen aldaketa bat da.

Baita ere, BEZaren eguneratzea barnean sarturik dago, eta horren zenbatekoa 17.975.833 pezetakoa da (zenbateko hori berriro kalkulatu dugu eta zuzentzat jo dugu).

##### B) I. zatia eraikitzeko kontratuaren aldaketak.

Kontratu horren finantza-araubidea aldatu egin da. Aldaketa hori KFLko 16. artikulua galdatzen duenari jarraituz izapidatua da, eta horren ondorioz prezioa igo da (ez du, ordea, epearen luzapena erakarri) eta bi kontratu-aldaketa, honakoak, hain zuzen, egin dira: aldi baterako etetea, gehie-

nez ere 6 hilabeteko epea duena (etete hori luzatua izan da) eta behin-behineko likidazioarekin batera eginiko aldaketa bat.

Lehenengo aldaketa KFLko 16. artikulua galdatzen duenari jarraituz izapidatu zen: esleipen-hartzailearen adostasuna, proposamen-txostena, txosten juridiko eta kontuhartzailtzakoak eta kontratazio-organoaren onespena.

Aurreikusitako ezaugarriak lurzorua ez zeukan gero, obra-unitate gehiago egin behar zen, eta, horrekin batera, ur-hornidurako hodi bat ordeztzea –hori, hein batean, tunela egitean burutu behar zen–, batetik, eta landareztatze proiektutik banandutako zenbait obra-unitate, bestetik, gehitu zitzaizkion hasierako kontratuari aldaketa honetan (56.4 artikulua, obra osagarri edo akzesorioa). Jadanik azaldu dugu ezen, lau zatietan, obra-unitate horiek, landareztatze proiektutik banandurik, garrantzitsuenaren kontratistari esleitu zitzaizkiola.

Obrak aldi baterako, sei hilabetez, etetea onetsi zen bigarren aldaketaren bitartez, zeina KFLko 16. eta 55. artikuluek galdaturikoari jarraituz izapidatu baitzen. Etete horren arrazoa honako hau zen: tunela bukatzeko epe-muga –gogoratu beharra dago azpizati hau mugakide dela tunel horrekin– atzeratu egin zen. Etete hori kontratuaren terminoa bete baino hiru egun lehenago proposatu zen, eta ondoren onetsi zen; hain zuzen ere, printzipioz obrek jadanik bukatuta behar zutenean.

Legeari jarraituz izapidatu zen hirugarren aldaketa batek lehenagoko aldi baterako etetea mugarik gabe luzatzea onetsi zuen; hain zuzen, etetearen kausak desagertu arte, hasierako etetearen arrazoiek bai baitzirauten.

Azkenik, foru agindu baten bitartez obrak berriro hasi ondoren (aldez aurretik, Zerbitzuak proposamena egin zeukan eta txosten juridiko eta kontuhartzailtzakoak ere prest zeuden), beste epe bat, 3 hilabetekoa, ezarri zen, obrak bukatzeko. Horiek amaitutakoan, amaierako behin-behineko likidazioa onetsi zen, eta horrek beste kontratu-aldaketa bat erakarri zuen, KFLko 56.3.2. artikuluan aurreikusitakoa: “obra behar bezala burutzean benetan burutu den unitate-kopuruaren eta proiektuko kubikazioetan aurreikusitakoaren arteko aldearen ondorioz soilik gertatzen diren aldaketak; horiek, behin-behineko likidazioan sartuko dira, baldin eta erakartzen duten gastu-gehikuntza kontratuko prezioaren gaineratik ehuneko 10 baino gehiagokoa ez bada”. Horretarako, ez da beharrezkoa izan ez izapidatze ez onespene formalik. Bestalde, 3,6 milioi pezeta gehiagokoa den gastu handiago bat onetsi zen, BEZ tasa aldatzearen ondoriozkoa.

### C) II. zatia eraikitzeko kontratuaren aldaketak

Aurreko koadroan dakusagunez, kontratuak bi aldaketa izan ditu, eta, behin-behineko azken likidazioarekin batera, gastua areagotzeko hirugarren onespene bat, KFLko 56.3.2. artikulua baimendua, honako honen kontzeptupean: “obra behar bezala burutzean benetan burutu den unitate-kopuruaren eta proiektuko kubikazioetan aurreikusitakoaren arteko aldearen ondorioz soilik gertatzen diren aldaketak; horiek, behin-behineko likidazioan sartuko dira, baldin eta erakartzen duten gastu-gehikuntza kontratuko prezioaren gaineratik ehuneko 10 baino gehiagokoa ez bada”. Horretarako, ez da beharrezkoa izango ez izapidatze ez onespene formalik.

Guztiek dauzkate, izapidatzeari dagokionean, legeak eskaturiko egintza eta dokumentuak. Bigarren aldaketa, zeinak epea bi hilabetez luzatzen baitu, obrak bukatzeko epea amaitu ondoren onetsi zen.

Lehenengo aldaketa konplexua da; obra-unitateak gehitzea aurreikusten du, Belateko tunelaren trazadura-aldaketarengatik –zati hau horren jarraipena da– eta lurra konpentsatzeko behararengatik –lurra konpentsatzea zail gertatzen da orain, hasierako proiektua lau zatitan birbanatu baita–. Horretaz gain, bi obra osagarri edo akzesorio egitea onetsi du, hasierako kontratuari erantsirik, KFLko 56.4 artikulua dioenari jarraituz: bi bide eraikitzea eta, gainontzeko zatietan bezalaxe, landareztatze proiektuan aurreikusitako obra-unitateak burutzea, horretatik banandurik.

Bigarren aldaketaren xedea oso heterogeneoa da. Obra bukatzeaz zegoenean, alde aurretik obra guztiaren neurketa egin ondoren, aldaketa bat izapidatzeko beharra somatu zen, likidazioaren ehuneko 10aren berrikupekin ordaindu ezin daitezkeen obra-unitateen gehikuntza nabariaren ondorioz, portzentaia hori gainditu egin baitzen. BEZaren aldaketaren ondoriozko 15 milioi kontuan hartu dira.

Behin-behineko azken likidazioarekin batera eginiko aldaketan, proiektu honetan ez, baizik eta “Tuneletako instalazioak” deiturikoan, 1.117.799 pezetako zenbatekoarekin sarturiko kanalizazio batzuk barne hartu dira aldaturiko kontusailen artean. Izan ere, beste proiektu bateko obra-unitateak banandu eta honi erantsi zaizkio, alde aurretik eginikoa deuseztu behar ez izateko xedez, logikoa denez.

### D) III. zatiaren aldaketak

Obraren zati honek gorabehera asko jasan du burutzean; hainbeste, non esleituriko aurrekontua

baino ehuneko 76 gehiago baitira ordainketak. Kontratuak 5 aldaketa jasan ditu, larrialdiko aldaketa bat, behin-behineko azken likidazioarekin batera eginiko aldaketa bat eta obraren bermealdian onetsitako larrialdiko obra batzuk.

- Izapidatzea.

1. eta 2. aldaketen arauzkotasunari buruzko irizirik ezin dugu agertu, dagokion administrazio-espeditentea ez baitzaigu utzi.

3., 4. eta 5. aldaketek KFLko 16. artikulua eskatutako egintza eta dokumentu guztiak biltzen dituzte. Benetan buruturiko obra-unitateen kopurua proiektuaren kubikazioetan aurreikusitakoarekiko aldatzearen ondorioz sortarazitako gastu handiagoa onesten du behin-behineko likidazioarekin batera eginiko aldaketak. Hori dela-eta, 56.3 artikuluari jarraituz, behin-behineko likidazioan sartzen dira, kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino gehikuntza handiagoa ez izateagatik.

Aldaketa bakoitzaren xedea eta kausak txosten honen eranskinean ikus daitezke.

Lehenengo aldaketak 210,3 milioi pezetako obra-gehikuntza onetsi zuen. Horietatik, 23,1 obra osagarriak edo akzesorioak finantzatzeko dira, zeinak eskakizunak edo proiektuari eginiko alegazioak ebaztearen ondoriozkoak baitira. Beste 187 milioi proiektuaren akats edo hutsuneei egotzekoak dira, eta espreski adierazten da horiek ez dutela proiektu-egilearentzat erantzukizunik ekartzen. Berezitasun gisa, hauxe dauka: 71,2 milioi hornidura berezi bati egotzi zaizkio, zeina, KFLko 21.3 artikulua araberak, ez baita juridikoki kontratu-aldaketatzat jotzen.

Bigarren aldaketa konplexua da. Hauxe baimentzen du: kontratuan aurreikusitako obra-unitateak gehitzea, hasiera batean aurreikusi ez ziren obra-unitate berriak sartzeko eta obra osagarriak eta akzesorioak egitea; azken horien artean, gaintzeko zatietan bezalaxe, lur begetala metatu eta zabaltzeko obrak egitea dago —obra horiek landareztatze proiektutik banandurikoak dira—.

Hirugarren aldaketak ez du eraginik ez gastea ez epean. Esleituriko zatiko indusketetan proiektuak hasieran aurreikusitako soluzioko materialak eraztea zaila zela ikusirik, proiektuan aurreikusitako bidezoru-zatia beste ezberdin batekin ordeztzea baimentzen da. Hasierako proiektuak jatorri hori ezartzen zuen, hain zuzen ere, obra bere luzera guztian kontratista berak eraikia izango zelako ustean.

Laugarren aldaketak, lubiziaz eta ezponden desegonkortasuna konpontzeaz gain, lau obra osagarri edo akzesorio, ezberdinak, ekarri zituen.

Bosgarren aldaketak 23,7 milioi pezetako balioa duten obra-unitateak kendu zituen proiektutik, horiek burutzea Almandozko tunela (II. zatia) amaitzearen baitan egoteagatik. Obrak etetea ez zen interesatzen. Kontratatik espreski uko egin zion obrak bertan behera uztearen kasuan industria-onura jasotzeko izango lukeen eskubideari (KFLko 56.1 artikulua).

Seigarren aldaketa KFLko 56.2 artikulua ezarritakoari jarraituz izapidatu zen. Artikulu horrek, salbuespen gisa, kontratazio-organoari ahalmena ematen dio 16. artikulua agindutako aurretiazko espeditentea eta formazko betekizunak ez betetzeko, eta zera agintzen dio kontratistari: “jadanik buruturiko obra-zatien iraunkortasuna bermatzeko edo obrari berari nahiz hirugarrenei kalte larriak eragitea ekiditeko guztiz ezinbesteko diren aldaketak egitea. Larrialdia erakarri zuen kausa desagerturik, Foru Lege honek xedatutakoari jarraituz aldaketa-espeditentea izapidatuko da berehala.”

Obrari berari nahiz hirugarrenei kalte larriak eragiteko arriskua dokumentu bidez azaldua dago espeditentean, eginiko obraren xehekapena kontuan izanik (lubiziei, ezponda-labainketei eta bidezubiaren zutabearen ondoko bide-lubiziarri irtenbidea emateko obra izan da).

Izan ere, obrak amaitu eta gero espeditentea izapidatu da, KFLko 16. artikulua xedaturikoari jarraituz, eta esleipen-hartzailearen adostasun, txosten juridiko eta kontuhartzailtzakoaren eta kontratazio-organoaren onespeneraren konstantzia badago.

Behin-behineko likidazioarekin batera eginiko aldaketak 11 milioi pezeta barne hartzen du, BEZaren aldaketaren kontzeptupean, eta benetan buruturiko obra-unitateen kopuruaren aldaketa finantzatzea (kontratuaren prezioaren ehuneko 10 baino txikiagoa izateagatik, izapidatze berezirik gabe onets daitezke, 56.3 artikulua xedatutakoari jarraituz). Aipatu beharrekoa da aurrekoaren ondoriozko 316,9 milioi pezetetatik 86,5 milioi hornidura bereziari egotzen zaizkiola.

- Bermealdian eginiko larrialdiko obrak.

Obren behin-behineko harrera 1996ko otsailean izan zen. Beranduago, eta, beraz, bermealdian barruan, zerbitzuan zegoen errepidean lubizi bat gertatu zen ezponda batean, Almandozen parean, eta beste lubizi bat, 11,320 p.k.an.

Beste lubizia obrak bermealdian egotearen ondorioz esleipen-hartzaileari agindutako birjartze gisa izapidatu zen. Proposamen-txostena, txosten juridikoak eta kontuhartzailtzakoak, 3.580.202 pezetako faktura eta onespenerako Foru Agindua

badaude. Hori guztia obrak burutu ondoren izapidatu da. Administrazioako fakultatiboak emandako aginduen konstantzia ere badago espedientean. Izapidatze guztia, KFLko 56.2 artikuluari jarraituz eginikoa.

**E) IV. zatiko aldaketak.**

Kontratuak aldaketa bat eta gastu-gehikuntzak izan ditu. Azken horiek behin-behineko azken likidazioan eta behin betikoan jasota daude. Baita ere, finantza-araubidearen aldaketa bat onetsi zen. Horiek guztiak KFLak galdatutako betekizunak betez izapidatuak dira.

Kontratu hau aldatzeak 3 hilabeteko epe-luzapena erakartzen du; aldaketa hori obrak amaitzeko terminoa bukatu zenetik hiru hilabete igaro ondoren onetsi zen, epea iraungi aurretik izapidatzen hasi bazen ere.

Aurreko zatietan azterturikoak bezalaxe, eduki anitzeko aldaketa da, obra-unitate batzuk beste batzuekin ordeztetik obra osagarriak edo akzesorioak onesteraino. Azken horien artean, landareztatze proiektutik bananduriko eta zati bakoitzeko obra nagusiari erantsiriko lanak burutzea.

Behin-behineko likidazioa behin-behineko harrera-akta baino urtebete beranduago onetsi zen; beraz, printzipioz, kontratistaren aldeko berandutza-interesak sortzen ditu.

Berandutzaren kausa behin-behineko azken likidazioari kontratistak aurkezturiko alegazioetan dago. Erreklamazio horrek sortu zuen administrazio-jarduera (txosten tekniko eta juridikoak, lekualdatzeak eta abar) kontratistak eskaturikoa ukatzearekin batera bukatu zen.

Behin-behineko likidazioak 15.884.468 pezeta-ko gastu handiagoa ekarri zuen; horri, BEZ aldaketaren ondoriozko 3.785.883 pezeta gehitu behar zaizkio. Zenbateko hori aurrekontu bateratuaren ehuneko 2,23koa da; horregatik, KFLko 56.3 artikulua aplikatu behar da, zeinak kasuan kasuko aldaketaren onespentetik salbuesten baititu obra behar bezala burutzean benetan burutu den unitate-kopuruaren eta proiektuko kubikazioetan aurreikusitakoaren arteko aldearen ondorioz soilik gertatzen diren aldaketak; horiek, behin-behineko likidazioan sartuko dira, baldin eta erakartzen duten gastu-gehikuntza kontratuko prezioaren gaintetik ehuneko 10 baino gehiagokoa ez bada.

Behin betiko azken likidazioa onestearekin batera, milioi bateko ordainketa (kontserbazio kontzeptupean, bermealdirako) eta banda argi-isladatzaileak jartzea onetsi zen.

**F) Almandozko obra osagarriak, aldaketak.**

Kontratu honek izan duen aldaketa bakarra azken likidazioarekin batera eginikoa da; horrek 1.879.619 pezetako gastu handiagoa erakarri du (esleipen-aurrekontuaren ehuneko 6,29). Bide Zerbitzuak hori azaltzeko esan du obra-unitate gehiago burutu dela; horregatik, KFLko 56.3 artikulua aplikatu behar da, zeinak salbuespen bat ekartzen baitu izapidatze- eta oneste-araubide normalera.

**G) "Tuneletako instalazioak" kontratuko aldaketak.**

Kontratu hau bukatu gabe zegoen gu azterketa hau egiten ari ginenean. Bi aldaketa aztertu ditugu; bi horiek KFLko 16. artikulua eskaturiko betekizun guztiak betez izapidatuak izan dira.

Lehenengo aldaketak hobekuntza teknikoak egin zituen tuneletako instalazioetan: horrela, suhiltzaile, babes zibil eta beste hainbat zerbitzuren telefonia mugikorrarentzat "itzala" saihestu zen, Telekomunikazio Zerbitzuaren ekimenez, proiektuak aurreikusitakoa ez baitzuen nahikotzat jotzen.

Kontratuaren bigarren aldaketa ez du KFLak aurreikusten, zeren eta kontratatzen ari dena ez baitira kontratan sarturik ez dauden edo bertan adierazitakoari funtsean lotzen ez zaizkion obra-unitateak; horren ordez, aldaketa gisa, beste izae- ra bateko kontratu bat esleitzen ari da: zerbitzuate kontratu bat, hain zuzen.

Beharrezkoa den txosten juridikoak eragozpen garrantzitsuak jartzen ditu ikuspegi horretatik.

Tunelak publikoari irekitzeko, beharrezko dira langile-talde bat eta bitarteko materialak, tunelen ustiapenez eta mantentzeaz arduratzeko. Horrek barne hartzen du Kontrolguneko etengabeko arreta, dauden gertakariak arretaz aztertzea eta instalazioak ikuskatu eta garbitzea (ustiapena), instalazioen egiaztapen, doikuntza eta badaezpadako mantentzea, eta matxuraturiko elementuak konpondu edo ordezteak (mantentzea).

Etorkizunean, eginkizun horiek helburu horrekin kontraturiko enpresa batek egin behar ditu. Hala ere, lau hilabeteko hasiera-epe batean zehar, horiek egingo ditu instalazioak egin dituen Enpresen Aldi Baterako Batasunak, bi helbururekin: alde batetik, instalazioen prestaketa bukatzea, aldi berean, horien ustiapen eta mantentzeaz arduratuz, eta, bestetik, ustiapen-talde berria kontratatzea, horrela instalatzaileek horien prestakuntza zain dezaten.

Horrela, hilabeteroko unitate bat sortzen da, ia 10 milioi pezetako kostuarekin; unitate horrek 15 pertsoneri ordaintzen die, eta, horretaz gain, lau ibilgailu eta konponketetarako hainbat material

suntsikor ere ordaintzen ditu. Beraz, aldaketa bat bailitzan, zerbitzuak emateko kontratu berri bat esleitzen ari da.

### VII.5.2. Kontratuaren bukaera

	Belateko tunela	Tuneletako instalazioak	Arraizko		Bentak		/ Zozaia		
			1. zatia	2. zatia	3. zatia	Almandozko obrak	4. zatia	Landareztatzea	
Esleipen epea	24 hilabete	9 hilabete	13 hilabete	21 hilabete	14 hilabete	3 hilabete	11 hilabete		
Zuinketa egiaztatze akta	93-07-20	97-02-12	94-09-05	94-09-15	94-08-15	97-03-08	94-08-23	95-5-15	
Esleituriko epe-muga	95-07-22	97-11-12	95-10-05	96-06-07	95-10-16	97-06-08	95-07-24	97-12-31	
Aldaketa, 1. epea	gehikuntzarik gabe		gehikuntzarik gabe	gehikuntzarik gabe	gehikuntzarik gabe	gehikuntzarik gabe		3 hilabete	
Aldaketa, 2. epea	6 hilabete	4 hilabete	etetea, 6	2 hilabete	4 hilabete				
Aldaketa, 3. epea	9 hilabete	luzapen mugagabea		gehikuntzarik gabe					
Aldaketa, 4. epea	3 hilabete	97-8-12 arte		gehikuntzarik gabe					
Aldaketa, 5. epea					gehikuntzarik gabe				
Aldaketa, 6. epea					gehikuntzarik gabe				
Behin-behineko azken likidazioarekin batera eginiko aldaketa									
Behin-betiko azken likidazioarekin batera eginiko aldaketa									
Aldaturiko epea, guztira	42 hilabete	13 hilabete		23 hilabete	18 hilabete	3 hilabete	14 hilabete		
Aldaturiko epearen muga	97-01-22		97-08-12	96-08-06	96-02-12	97-06-08	95-10-24		
Behin-behineko harrera-akta	97-06-09		97-12-19 97-12-23	96-09-16	95-11-22 96-02-16	97-04-30	95-12-20		
Ziurtapen arruntak, guztira	42		18	23	¿	1	12		
Behin-behineko azken ziurtapena	1		1	1	¿	1	behin-behineko 1 + azken 1		
Ohiko azken ziurtapenaren data	97-05-22		97-9-17	96-08-07	¿	97-04-07	95-11-27	97-12-31	
Behin-behineko azken likidazioaren data	97-12-19		97-12-23	96-09-20	¿	97-05-28	96-5-30 97-9-3		

#### A) Tunela.

Epea, aldaketa guztiak kontuan hartuz, 42 hilabetekoa da. 42 ziurtapen arrunt dago eta behin-behineko azken bat.

B) Instalazioak. Aldaketak kontuan hartuz, kontratuaren epe-muga 97-11-12 da. Hala eta guztiz ere, azken aldaketak hileroko ziurtapen bat onetsi zuen lau hilabeterako, eta luzatuko zutela pentsatzen dugu, kontratua oraindik ere burutzen ari baita.

C) I. zatia. Zenbait gorabeheraren ondoren –6 hilabeterako etetea, etete hori mugarik gabe luzatzea eta abar–, izan ere, zati hau egiteko prozesuaren erritmoa ondoko zatia bukatzeari egokitu behar baitzaio, ezarritako epean bukatu ziren obrak.

D) II. zatia. Epea betez bukatua.

E) III. zatia. Epea betez bukatua, behin-behineko azken harrera-aktak termino-egunaren data baitauka.

F) IV. zatia. Azken likidazio arruntaren data kontratuaren epe-muga baino hilabete bat beranduagokoa da.

G) Almandozko obra osagarriak. Horiek burutzeko epea 3 hilabetekoa izanik, bi hilabete baino denbora laburragoan egin ziren.

H) Landareztatzea. Horren ardura enpresa publiko bati eman zitzaion. Epea betez bukatu zen.

**Ondorioz**, kontratu guztietan, "Almandozko obra osagarriak" izenekoan eta landareztatze proiektua burutzekoan izan ezik, izan diren aldaketek epea luzatu dute. Gehikuntzarik nabarmena Belateko tuneleko obrena da, zeinetan, esleitzean ezarritako epea 24 hilabetekoa izanik,



berori, hainbat aldaketaren bitartez, 42 hilabeteraino luzatzen baita (hau da, ehuneko 75eko luza-pena).

Guztizko epea kontuan hartuz (hau da, esleipeneko gehi aldaketen bidez onetsiriko gehikuntzak), I., II. eta III. zatiei, Almandozko obra osaga-

rrii eta landareztatzeari dagozkien kontratuak epe barruan burutu dira.

IV.zatia bukatzeko hilabete bateko atzerapena izan da.

Belateko tunela, bestalde, onetsiriko azken datarekiko lau hilabeteko atzerapenez bukatu zen.

### VIII. LAGUNTZA TEKNIKOA

	Belateko tunela	I. eta II. zatiak	III. zatia	IV. zatia	Tuneletako instalazioak
Lizitazio-aurrekontua	236.118.000	195.279.600	28.332.988		32.934.803
Esleipen-aurrekontua	169.084.500	164.006.987	21.198.786		26.285.005
Beharpen-portzentaia	28,39	16,01	25,18		20,19
1. prezio-aldak	50.299.092				
2. prezio-aldak	16.766.364				
Azken likidazioarekin batera eginiko aldaketa	7.162.218	-17.003.422			
Aldaketa, guztira	74.227.674	-17.003.422			
Aurrekontu bateratua	243.312.174	147.003.565	21.198.786		26.285.005
Azken ziurtapena	242.690.511	145.925.918	20.899.833	3.863.774	23.612.509
BEZ aldaketa	621.663	1.077.647	136.504		
Ordainketak, guztira	243.312.174	147.003.565	21.036.337	3.863.774	23.612.509
% ordainketa/esleitura	143,53	88,98	98,59		
% ordainketa/bateratua	0,00	0,00	0,00		
Lizitazio epea	30 hilabete	24 hilabete	15 hilabete		12 hilabete
Esleipen epea	30 hilabete	24 hilabete	15 hilabete		12 hilabete
1. aldaketa.-Epea	9 hilabete				
2. aldaketa.-Epea	3 hilabete				
Epe bateratua	42 hilabete	24 hilabete	15 hilabete		
Ziurtapena	42 hilabete	24 hilabete	15 hilabete		
Esleipen-hartzailea	Elsamex	Elsamex	Elsamex	Lab. Proyex	Euroestudios
Esleipen-modua	Lehiaketa	Lehiaketa	Lehiaketa		Lehiaketa
Esleipen-data	22-06-93	03-08-94	21-11-94		30-12-96

Aurreko koadroan ikus daitekeenez, laguntza teknikoko 5 kontratu esleitu dira, eta, guztira, 438.828.359 pezetako ordainketak eragin dituzte, 1997ko abenduaren 31ra arte. Aipatu beharra dago "tuneletako instalazioen" obrarako laguntza teknikoko kontratua indarrean zegoela data horretan, eta ordainketak eragin dituela 1998an zehar.

4. zatirako laguntza teknikoko kontratuaren administrazio-espedientea ez zaigu utzi. Adieraz-

ten den gastu-kopurua kontabilitatetik ondorioztatuturikoa da.

#### VIII.1. KONTRATUEN XEDEA

Belateko tunelerako eta I., II. eta III. zatietarako laguntza teknikoko kontratuek duten xedea hauxe da: kasuan kasuko obraren zuzendaritzarako laguntza teknikoko nahiz kalitate-kontrolerako zerbitzuak ematea. Asmo horrekin, obraren kon-

trol topografiko, geometriko, kalitatezko, kantitatezko eta abarrerako hileroko unitateak antolatzen dira, eskainitako langileriaren titulazioaren eta laborategiko saiakuntza bereziak justifikatzeko oroharreko kopuruko kontusailen arabera.

III. zatirako laguntza teknikoko kontratuak helburu ezberdina dauka: laginak hartzea eta laborategiko saiakuntzak burutzea.

## VIII.2. KONTRATAZIO ESPEDIENTEA

Ez dugu Belateko tunelari buruzko espediente aztertu, Ganbarak jadanik horri buruzko txostena egina baitauka; ezta, logikoa denez, IV. zatiri buruzkoa ere, ez baitugu ezagutzen.

Foru Komunitateko Administrazioak izenpetzen dituen laguntza teknikoko kontratuak arautzen dituen apirilaren 25eko 161/91 Foru Dekretuak adierazitako prestaketako administrazio-jarduketa guztien konstantzia badago azterturiko kontratazio-espeditanteetan: txosten teknikoak, AKPO, txosten juridiko eta kontuhartzaitzakoak eta kontratazio-organoaren erabakia; baita Nafarroako Gobernuaren Erabakia ere, gastuak hainbat ekitaldi ukitzen dituenan.

### VIII.2.1. Proposamena

Aztertu ditugun kontratuak bakar batean ere, proposamenak ez dauka "asetu beharreko beharriaren frogatzeko txostena eta beharriaren horiek asetzeko Departamentuak dauzkan bitarteko pertsonal edo materialak behar adinakoak ez izatea, egoki ez izatea edo horiek gehitzea komenigarria izatea frogatzen duen txostena", zeina beharrezkotzat jotzen baitu foru dekretu arautzaileko 6.a) artikulua.

### VIII.2.2. AKPO

Kasu guztietan jasotzen du araudiak ezarritako gutxienezko edukia.

Lehiaketako esleipen-irizpideei dagokienean, bi kontratu-talde bereiz daitezke:

- I., II. eta III. zatiei dagozkienek honako irizpideok aipatzen dituzte: aurrekontua, epea, eskaintza, gaitasuna, esperientzia eta abar, nahiz eta hierarkiazko ordenarik ezartzen ez duten, eta horietako bakoitzak guztizko puntuazioaren zer portzentaia hartzen duen ere zehazten ez duten. Horiek zer nolako metodologiari jarraituz ebaluatuko eta haztatuko diren agertzen duen inolako adierazpenik ere ez dute egiten.

Hala ere, I. eta II. zatietarako laguntza teknikoko kontratuari dagokionez, obra-kontratuaren gertaturikoaren antzera, eskaintzak aurkezteko ezarritako terminoa baino lehenago, NAOn iragarki

bat argitaratu zen, "AKPOko ez egiteko akatsa" zuzentzeko, eta horrekin batera esleipen-irizpideen haztapena argitaratzen zen. Halaber, esleipen-irizpide bakoitza osatzen duen atal bakoitza ezarri zen, eta azpiirizpideotako bakoitzerako gehieneko puntuazioa adierazi zen. Dokumentu hori, kartazal itxi batean sarturik, kontratazio-mahaiko lehendakariaren zaintzapean geratu zen, eta ireki eta lizitatzaileri horren berri eman zitzaizen proposamen ekonomikoak ireki ondoren.

Belateko tuneletako instalazioetarako laguntza teknikoari buruzko AKPOak irizpide bakoitzaren portzentaiazko haztapena agertzen du, eta, gainera, horietako bakoitza ebaluatzeko aintzat hartuko diren faktoreak adierazten ditu. Kontuan eduki bedi kontratu hori 1996an esleitu zela; bestek, ordea, 1993-1994an esleitu ziren.

Lehiaketa-iragarpena NAOn argitaratu izanaren konstantzia badago, azterturiko kontratu guztiei dagokienean.

## VIII.3. ESLEIPEN-FASEA

Espediente guztietan agertzen dira kontratazio-mahaia izendapena –legeak galdatzen duen osaerarekin– eta kasuan kasuko onarpen-aktak, zuzenketa-aktak –hala behar balitz– eta proposamen ekonomikoak ireki izanari buruzkoak ere.

Lizitatzailerek igorritako dokumentazioa ez zaio erantsi azterturiko espedienteetako bakar bati ere (zuzenketa-izapidean ekarritakoa izan ezik). Horrek muga bat jarri dio eginiko lanari, ezin baitugu egiaztatu AKPOak ezarritako betekizunak betetzen diren, ezta enpresa bakoitzari emandako puntuazioa zuzena den.

Kasu guztietan, Herrilan Kontseilariak Bide Zerbitzuaren proposamen-txostenean onuragarrien gisa adierazitako eskaintzari egin dio esleipena.

III. zatiko eskaintzak balioesteko proposamen-txostena ezin da aztertu, ez baitu balioespen-koardorik azaltzen, eta harturiko erabakia ere ez du deskribatzen; honakoa besterik ez du adierazten: "oro har, eskaintzarik onuragarriena Elsamex, S.A.k eginikoa da; horregatik egiten da horren aldeko proposamena".

Tuneletako instalazioei dagokien kontratuko proposamen-txostenak kontratazio-mahaia onarituriko eskaintza bakarra proposatzen du.

I. eta II. zatietarako laguntza teknikoak esleitzeko proposamena alde aurretik onetsitako irizpide haztatuen arabera eginiko balioespen batean oinarritzen da. Azken batean, proposatzen dena

eskaintzarik merkeena eta gainontzeko irizpideen ikuspegitik puntuaziorik onena duena da. Eskaintza teknikoarengatik, langile-taldearengatik edo esperientziarengatik eskaintza guztiek puntuazio berbera jaso izan balute ere, esleipen-hartzailea izango zen hobekien balioetsirikoa.

#### VIII.4. KONTRATUA FORMALIZATZEA

Espediente guztietan agertzen da kontratua, administrazio-dokumentu bitartez formalizatua, eta esleipen-hartzaileak bermea gordailuan utzi izana, AKPOak adierazten dituen zenbatekoarekin eta epearen barruan.

#### VIII.5. KONTRATUA BURUTZEA

Epigrafe honen idazpuruan agertzen den koadrotik ondorioztatzen denez, aztertu ditugun lau espedienteetatik kontratu-aldaketak jasan dituztenak Belateko tunelari eta I. eta II. zatiei dagozkienak bakarrik dira. Jarraian aztertuko ditugu aldaketa horiek.

##### VIII.5.1. Aldaketak

1. eta 2. zatiei eta Belateko tunelari dagozkien kontratuen finantza-araubideak aldaketak jasan ditu, bakoitzaren urteroko ordainketarako aurrekontu-dotazioari dagokionean. Aldaketa horiek, zeinek, logikoa denez, ez baitiete kontratuaren prezioari eta epeari eragiten, KFLan ezarritako betekizunei jarraituz izapidatu dira.

Belateko tunelaren obretarako laguntza tekniko kontratua 169 milioi pezetatan esleitu zen, eta 243,31 milioi ordaindu ziren (horrek esan nahi du ehuneko 43ko gehikuntza izan zela). Esleipen-epea 30 hilabetekoa zen, eta, guztira, 42ren ziurtapena egina zegoen.

Aipaturiko koadrotik ondorioztatzen denez, alde horiek bi kontratu-aldaketaren bitartez baimenduak izan dira. Kontratuak berak, 3. klausulan, kontratuaren luzapenak onetsi ahal izatea aurreikusten zuen –esleipeneko prezio-koadroa

aplikatuko zen–, baldin eta kontratatzen zen kontrol eta zaintzaren xede ziren obrak burutzeko behar zen epea aurreikusitakoa baino luzeagoa bazen. Eta halaxe gertatu da, gertatu ere.

Aipaturiko aldaketak gorabehera, behin-behineko azken likidazioa 7,1 milioi handiagoa zen bateraturiko aurrekontua baino, eta baimendutakoak baino hilabete bat gehiago erabili zen. Behin-behineko azken likidazioarekin batera onetsirikoa beste aldaketa baten bitartez arauzkotu ziren bi gehikuntza horiek.

Aipaturiko aldaketa horiek KFLko 16. artikulua (161/91 Foru Dekretuko 14. artikuluekin batera) galdaturiko betekizunei jarraituz izapidatuak izan dira. Hori horrela izanik ere, adierazi beharra dago ezen, bi kasu horietan, kontratuaren epe-muga baino egun gutxi lehenago hasi dela Zerbitzua luzapena izapidatzen; hori dela-eta, hiru hilabetez (lehenengo aldaketaren kasuan), eta beste hiru hilabetez (bigarren kasuan), aipatzen ari garen kontratuak xede dituen prestazioak inolako euskarri juridikorik gabe eman ziren.

I. eta II. zatietako obretarako laguntza tekniko kontratuak aldaketa bakarra izan zuen, behin-behineko azken likidazioarekin batera eginikoa. Horren justifikazioa hauxe da: hainbat hilabetetan zehar ez dela beharrezkoa izan kontratuan aurreikusitako bitarteko tekniko eta giza bitarteko guztiak erabiltzea. Aldaketa horrek, zeinak KFLak galdaturiko betekizun guztiak betetzen baititu, 17 milioiko aldea duen gastu txikiago bat erakarri zuen, eta kopuru hori aurrekontu-lerroa itzul zedila agindu zen.

##### VIII.5.2. Azterturiko espedientei dagozkien beste hainbat kuestio

Esan dugun bezala, tuneletako instalazioen obrarako laguntza teknikoari dagokion kontratuak indarrean segitzen du 1998an zehar.

## IX. LINEA ETA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

			Aurrekontua	Ordainketa
Iberdrola	KFLtik kanpo	Oiartzun-Almandoz lineatik (30 kv) Belateko tuneleko iparraldeko muturreraino	12.891.431	12.891.431
Iberdrola	KFLtik kanpo	Oiartzun-Almandoz lineatik (30 kv) Almandozko tuneleko iparraldeko muturreraino	14.039.837	14.039.837
Iberdrola	KFLtik kanpo	Oiartzun-Almandoz lineatik (30 kv) Almandozko tuneleko hegoaldeko muturreraino	11.365.617	11.365.617
		BEZ aldaketa		333.016
Iberdrola	KFLtik kanpo	Ultzama-Alkotz lineatik (13 kv) Belateko tuneleko hegoaldeko muturreraino	1.151.542	1.151.542
		Linea elektrikoak edo linea-aldaketa; atal honetan, guztira	39.448.427	39.781.443
Cubiertas/Feler	Lehiaketa	Obra burutzea, 3 proiektu	105.114.253	105.417.999
Feler	Zuzenekoa (Larrialdia)	Instalazioak araudi berrira egokitzeko obrak	16.000.000	15.165.811
		Obra burutzea; atal honetan, guztira	121.114.253	120.583.810
		Guztira	160.562.680	160.365.253

#### IX.I. LANEN DESKRIBAPENA

Belate eta Almandozko tuneletako instalazioetako elektrizitate-beharrizanei aurre egiteko, Departamentuak hainbat ekintza burutu du.

Hornidura egiteko zegoen aukera bakoitzari buruzko azterketa tekniko eta ekonomiko egin ondoren, Bide Zerbitzuak egokien zeritzon aukera hauxe zen: linea osoa Iberdrolaren jabetzako izatea, eta deribazioak nahiz instalazioen gainontzekoa Departamentuak berak zuzenki egitea.

Horretarako, beharrezkoa izan zen eraikitako transformazio-instalazioetaraino iristen ziren linea elektrikoek osaturiko goi-tentsioko lau lotura-instalazio jar zitzala Iberdrolak. Lotura-instalazioak Iberdrolaren jabetzakoak dira.

Aldi berean, lau proiektu idatzi ziren lotura-instalazio horiek transformazio-gune eta instalazio hartzaileetaraino deribatzeke. Gune eta instalazio horiek ere proiektuetan sartuta daude, eta kasu honetan Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak dira. Proiektuei buruzko atalean aztertzen dira.

Beranduago, proiektu horietan sartutako instalazioak eta obra burutzeko lehiaketarako deialdia egin zen. Obrak bukatu ondoren, beste kontratu bat egin zen, horiek segurtasun-betekizun berriei egokitzeko.

Behe-tentsioko instalazio elektriko osagarria "Belate eta Almandozko tuneletako instalazioak" proiektuan sartu zen. Ikus bedi atal hori.

#### IX.2. IBERDROLAKO LINEAK JARRI EDO ALDATZEA

Kontratu horiei ezin zaie aplikatu administrazio-kontratazioko araudia, KFLko 2.2.b) artikuluari berari jarraituz, bere aplikazio-esparrutik at uzten baititu "Foru Komunitateko Administrazioak partikularrekin egiten dituen eragiketak, baldin eta legezko xedapenen bitartez mugaturiko trafikoa daukaten ondasun edo eskubideak badira haien xede...". Horixe da elektrizitate-sektorearen kasua, zeina Sistema Elektriko Nazionalaren Antolamenduari buruzko abenduaren 30eko 40/1994 Legeak arautzen baitu.

Espediente guztiak aztertu ditugu, eta horietan guztietan honako honen konstantzia dago:

- a) Aurrekontua onetsi eta lana egiteko agindua ematea.
- b) Iberdrolari aurrekontua eskatzea.
- c) Iberdrolaren aurrekontua.
- d) Proposamen-txostena, administrazio aurrekariak eta esku hartzeko beharra azalduz.
- e) Aurrekontu-kreditua badagoela adierazten duen kontuhartzailatza-txostena.
- f) Kontratazio-organoaren ebazpena, aurrekontua eta gastua onesten dituen eta Iberdrolari konpromisoa adierazten diona.
- g) Lana hartzea eta ordainketa onestea.
- h) Iberdrolaren faktura.

i) Obrak nahi zen bezala egin direla adierazten duen proposamen-txostena.

j) Kontuhartzailtzaren txostena, kargu-lerroarekiko adostasuna adierazten duena.

k) Kontratazio-organoaren ebazpena, ordainketa egin dadila agintzen duena.

Aurrekontua eta faktura berdin-berdinak direla adierazi behar da, sektoreko tarifak ofizialki ezarritakoak baitira, hartuneei buruzko Erregelamendua onesten duen urriaren 15eko 2949/82 Errege Dekretuak aztertutako kasuetan, BEZ tasaren aldaketa izan ezik.

### IX.3. LINEA ELEKTRIKOEI BURUZKO PROIEKTUETAKO OBRAK BURUTZEA

#### IX.3.1. Kontratuaren xedea

Honako proiektu hauetako obrak burutzea:

- 13,2 kv-ko linea elektrikoaren proiektua eta Belateko tunela hegoaldeko muturretik energiaz hornitzeko 1 eta 3 zenbakiak dituzten transformazio-guneak.

- 30 kv-ko linea elektrikoaren proiektua eta Belateko tunela iparraldeko muturretik energiaz hornitzeko 2 eta 3 zenbakiak dituzten transformazio-guneak.

- 30 kv-ko linea elektrikoaren proiektua eta Almandozko tunela iparraldeko eta hegoaldeko muturretatik energia elektriko hornitzeko 1 eta 2 zenbakiak dituzten transformazio-guneak.

Proiektu bakoitzak lur azpiko lineak eta transformazio-guneak jartzea aurreikusten du. Gainera, lehenengo proiektuak airetiko linea bat jartzea aurreikusten du.

#### IX.3.2. Kontratazio-espeditentea

KFLko 24. artikulua agintzen dituen administrazio-egintza guztiak jasotzen ditu kontratazio-espeditentea: Nafarroako Gobernuaren Erabakia (beharrezkoa da lizitazio-aurrekontua 150 milioi pezeta baino altuagoa izateagatik), AKPO, txosten juridiko, tekniko eta kontuhartzailtzakoak. Proposamen-txosten teknikoak berak egiten du lursailen eskuragarritasunari buruzko adierazpena, honakoa esaten baitu: "Lehen aipaturiko proiektuetan aurreikusitako obrak burutzeak ez du ekarriko lursail gehiago okupatzea edo aurretiazko administrazio-baimen edo-izapidatzerik, Belateko mendatea hobetzeko obraren eremuan daudelako fisikoki kokatuta obra horiek". Agintari eskudunak onetsi ondoren, NAO argitaratu zen.

-AKPO.

RCEko 82. artikulua ezarritako gutxieneko edukiaren arabera da. Artikulu hori erregelamendu bidezko berezko garapenik ez badago aplikagarria da, ordezko izaerarekin, salbuespen hauekin:

a) Ez da behin-behineko fidantzarik ezartzen lehiaketara jo ahal izateko; KFLak, ordea, horretara behartzen du.

b) KFLko 107.1 artikuluan dagoen baimena ere ez da erabiltzen. Haren bitartez, "obra-kontratuaren administrazio-klausula partikularren orrietan, kontratazio-organoek klausula bat sartu ahal izango dute zeinaren bitartez lizitazioan parte hartu ahal izateko eskatzen den sailkapena daukatela frogatzen duten kontratistak salbuetsita utziko diren behin-behineko fidantza emateko beharretik."

Esleipen-irizpideak ezartzen ditu eta guztizko puntuazioaren gainean daukaten portzentaiazko garrantzia haztatzen du. Halaber, eskaintza ekonomikoa haztatze formulak adierazten ditu.

#### IX.3.3. Esleipen fasea

Lehiaketaren iragarkia NAO argitaratu izanaren konstantzia badago. Kontratazio mahaia Legeak ezarritako osatura zeukala izendatu zen. Halaber, espedientean agertzen dira eskaintza ekonomikoak onartu, zuzendu eta irekitzeari buruzko aktak. Lizitatuak guztiak onartuak izan ziren. Erregistro Orokorrek eskaintzak erretiratzeari buruzko ziurtagiria adierazitakoarekin bat dator euren identitatearekin.

Aztertutako gainontzeko kontratu guztietan bezalaxe, akte ez dute KFLko 34. artikulua betetzen. Artikulu horrek galdetzen duenez, Mahaiko Idazkariak kartazal bakoitzean dagoen dokumentu-zerrendari buruzko ziurtagiria egintza du.

Eskaintza guztiak alderatzen dituen koadro bat egin zen, eta balioespen-txostena ere. Hortik ondorioztatu zen eskaintzarik onena Cubiertas y Mzov-Feler Enpresen aldi baterako batasunak aurkezturikoa zela, eta proposaturikoari esleitu zion kontratazio-organoak.

Gure ustez, esleipen-prozesua gardena izan da, aldez aurretik finkatua izan delako; horrela, ba, lizitatuak guztiek jakin zezaketean, euren eskaintzak aurkeztu aurretik, horietatik zein alderdi balioetsiko ziren, eta puntuazio osoarekiko izango zuten portzentaiazko garrantziaren berri ere bazeukaten. Balioespen-txostena argia eta xehekatua da, eta eskaintza bakoitzari atal bakoitzaren ikuspegitik emandako puntuazioaren arrazoiak ere agertzen ditu. Aldez aurretik Foru Komunitatearekin izandako esperientzien irizpidea

guztientzat berdin balioetsia izan denez gero, eta eskaintza ekonomikoa puntuazioaren ehuneko 70 baino gehiagoren iturria denez gero, aurrez finkaturikoak eta publikoak diren formula horien arabera eskaintza ekonomikorik onena denari egin zaio esleipena, gainera.

Aztertu berri dugun proposamen-txostenaren ildoari jarraituz egin du esleipena kontratazio organoak.

#### **IX.3.4. Kontratu formalizatzea**

Espedientean agertzen dira AKPOak esleipen-hartzaileari eskatzen dizkion dokumentu guztiak (eskriturak, ahalduntzeak eta ahalduaren identitatea eta abar). Enpresen aldi baterako batasuna osatzen duen bakoitzaren partehartze-mailaren konstantzia badago. AKPOak eskatutako ehuneko 6ko bermeak eratu dira.

Kontratu administrazio-dokumentu bitartez formalizatu da, eta legeak adierazitakoak jasotzen ditu. AKPOak 5.1 klausulan adierazten du kontratua onetsi eta hurrengo hogeita hamar egunetan formalizatuko dela. Esleipena 1996ko abuztuaren 19an jakinarazi zen; beraz, kontratua, beranduenik ere, 1996ko irailaren 19an izenpetu beharko zen. Alabaina, 1996ko urriaren 8an izenpetu zen.

Zuinketa egiaztatzeari buruzko akta 1996ko urriaren 23an eman zen, erreserba eta oharririk gabe; horregatik, obrak hasteko agindua eman zen.

#### **IX.3.5. Kontratu burutzea**

Kontratuak burutzean jasan duen aldaketa bakarra gastu handiagoren onespina izan da, behin-behineko azken likidazioa zela-eta. Behin-behineko harrera eta gero, obra gehiago onetsi behar da, ondoren aztertuko dugun bezala:

A) Behin-behineko likidazioarekin batera eginko aldaketa.

Behin-behineko likidazioa egiterakoan, gastu handiagoa onesteko beharra igartzen da, 303.745 pezetako zenbateko murrizta duena (esleipen-aurrekontuko ehuneko 0,28). Zerbitzuaren txostenean azaltzen dira gasturik handieneko kontusailak: Belateko Iparraldeko transformazio-gunearen kokapen-aldaketa (Belate eta Almandozko tuneletako instalazioei buruzko proiektua garatzearen ondorioz), zerbitzu-gunean ubide bat eraikitzea eta zimentazioetan lurzoru naturalaren eta proiektuaren artean zeuden aldeak.

KFLko 56.3 artikuluko aldaketa baten aurrean gaude: "benetan burutu den unitate-kopuruaren eta proiektuko kubikazioetan aurreikusitakoaren arteko aldearen ondorioz soilik gertatzen diren

aldaketak; horiek, behin-behineko likidazioan sartuko dira, baldin eta erakartzen duten gastu-gehi-kuntza kontratuko prezioaren gaineratik ehuneko 10 baino gehiagokoa ez bada".

B) Kontratuaren epea betetzea.

Hasierako koadroak erakusten duenez, obrek bukatuta egon behar zuten 1997ko otsailaren 23an; epe hori bete egin zen, azken ziurtapenetik ondorioztatzen denez.

C) Larrialdiko obrak. Instalazioak Iberdrolaren araudiari egokitzea.

Aipagai diren obrak behin-behinekoz hartu eta zortzi hilabete beranduago, espediente bati ekin zitzaion, KFLko 27. artikulua aipatuz, hau da, "larrialdiko obrak", zeinek hauetako bat baitute kausa gisa: hondamendiak, arrisku larria sortzen duten egoerak edo segurtasun publikoan zuzeneko eragina daukaten beharrianak.

Aurrean esan berri denaren ondorioetarako, artikuluko horrek aparteko araubide bat ezartzen du, eta ahalmena ematen dio kontseilariari obrak zuzenean burutu daitezkeen agintzeko edo horiek libreki kontratatzeko, aurretiazko espedienterik izapidatu behar izan gabe eta KFLak ezarritako formazko betekizunei lotu gabe; Nafarroako Gobernuari horren berri eman beharko dio berehalakoan, Nafarroako Gobernuak egingo duen lehenengo bilkuran. Aldi berean, Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, espediente labor bat eginik, beharrezkoak diren fondoak horretara bideratuko ditu, eta "arrazoitzeke" izaera emango die. Horixe bera egingo du kontseilariak gastuak eta kontratuak egin eta horien kausa desagertu ondoren.

KFLko 27. artikuluko prozedurari jarraitu zaio. Bide Zerbitzuak hala proposaturik, Herrilan zuzendari nagusiak, urriaren 15eko 3077/96 Foru Aginduz egindako eskuordetzearen bidez, obrak onetsi zituen -larrialdietako prozedurari jarraituz burutuko dira-, 16 milioitako gastua onetsi zuen, eta, "obren izaera, aurretik eginitakoetan esku hartzeko beharra eta horiei buruz beharrezkoa den ezagutza kontuan hartuz", Montajes Eléctricos Feler, S.A. enpresari egin zion esleipena; enpresa horrek "goi tentsioko instalazioak egin ditu, eta orain horiek osatu edo aldatu egin behar dira".

Hartutako erabakiaren berri Nafarroako Gobernuari eman zitzaion, eta horrek, 1997ko abenduaren 22ko akordioaren bitartez, erabaki horren berri izateari buruzko adierazpena egin zuen.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuak fondoak bideratzea ez da beharrezkoa, gastuen aurrekon-

tu-lerroan kreditua bai baitzegoen. Obrak harrera-aktaren bitartez hartuak izan ziren, eta ziurtopena 15.165.811 pezetakoa izan zen.

Txostenak adierazten duenez, eskaturiko aldatuen edo osagarrien kausa hauxe da: proiektua idatzi zenetik (94ko otsaila) burutu zenerako tartean (97ko otsaila), enpresaren barne araudia aldatu egin zen, segurtasuna areagotzeko eta aparatu, instalazio eta abarren erabilera normalizatzeko. Behar zen azterketa egin ondoren, Iberdrola-San Sebastián-ek galdatu zuen energia-hornidura baimendu aurretik jadanik buruturiko instalazioetan zenbait alderdi tekniko alda edo osa zitezela.

Arrisku larria sortzen duten egoeren edo segurtasun publikoan zuzeneko eragina daukaten beharriaren justifikazio bakar gisa, hauxe aipatzen da:

“Obrak zerbitzuan jartzea hain garrantzitsua eta premiazkoa izanik, eta Industria Departamentuak, proiektua onetsi izan arren, instalazioak ikuskatu eta onartzeko enpresa hornitzailea eskuordetu duenez gero, Iberdrola-San Sebastián-eko teknikariek eginiko bileran erabaki da gutxieneko hainbat puntu betetzea; horiek azkar eginez gero, tuneletako instalazioetako obrak bukatu aurretik goi tentsioko energiaren hornikuntza ahalbidetuko litzateke”.

Gure iritziz, KFLko 27. artikulura jotzea gehiegizkoa da, eta azterturiko kasuan “hondamendiak, arrisku larria sortzen duten egoerak edo segurtasun publikoan zuzeneko eragina daukaten beharriarenak”, hau da, larrialdia koalifikatzen dutenak, daudela esatea zaila da oso.

Gertatzekotan, KFLko 26. artikuluan definituriko larrialdi-egoeretako bat gertatzen dela jotzeak arrazoizkoagoa dirudi. Honela dio artikuluko horrek: “beharrezkoak izateagatik berehala egin behar diren obrak edo guztion intereseko arrazoen ondorioz esleipen azkarragoa izan behar duten obrak”. Legeak hainbat salbuespen aurreikusten ditu horiek izapidatzeari dagokionean. Batez ere, kontuan hartzen baldin badugu ezen, zenbatekoa dela-eta, obraren esleipena zuzenki egin daitekeela, espedientearen izapidatzea eta epeak nabarmenki murriztuz. Gainera, zenbatekoa alde batera utziz ere, 42.2 artikulua zuzeneko kontratazioa baimentzen du “obrak presakoak direla aitortzen denean, baldin eta Foru Lege honetako 26. artikulua araututako presako izapidatzearen bitartez ezin bada lortu premiazko beharriarenak galdatzen duten presako obra horien burutzea.”

Konponbide horiek errealitateari egokituagoak eta proportzionatuagoak dirudite.

## X. DESJABETZAPENAK

	Zenbatekoa (pta.tan)
Desjabetzapena, laguntza teknikoa	1.918.445
Desjabetzapenak ordaintzea	125.107.244
<b>Guztira</b>	<b>127.025.699</b>

Nafarroako Gobernuaren erabakiak eta obra hauetako desjabetzapen-prozesuari buruzko foru dekretu eta foru aginduak ikusi ondoren, Nahitaezko Desjabetzapenari buruzko Legeko eta berori garatzen duen erregelamenduko betekizunak (onura publikoari eta gizarte-interesari buruzko aurretiazko deklarazioa beharrezkoa izateari dagokionez) bete direla ondorioztatzen dugu. Lege-erreserba errespetatu da, 10. artikulua dela-eta, bi lege hauek kontuan hartuz: Azpiegituretako Plan Orokorra onesten duen 1/89 Foru Legea eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko 12/86 Foru Legea. Ondasun eta eskubideen zerrendak egin ondoren, argitaratu egin ziren eta jendaurrean jarri ziren, eta okupatzeko beharra zegoela erabaki zen, nahitaezko desjabetzapenari buruzko erregelamenduko 16. artikuluari eta hurrengoari jarraituz.

### X.1. DESJABETZAPENEN ONDORIOZKO ORDAINKETAK

	Zenbatekoa (pezetatan)
Desjabetzuriko landa-lurzorua 446.460 m <sup>2</sup>	55.498.867
Lurzoruz besteko zenbait kontzeptu	
Eraikinak	19.449.000
Baso zurgaila	14.962.100
Zuhaitzak	8.115.931
Ustiapen-galera	6.264.810
Hormak	1.898.000
Finkaren gainontzekoan eragindako kalteen ordainak	1.682.263
Aldi baterako okupazioak	1.237.410
Itxiturak	1.013.500
Askotarikoak	908.200
Irabazi lortugabea	412.470
Linea elektrikoaren zortasuna	267.000
<b>Atal honetan, guztira</b>	<b>56.210.684</b>
Aktan ordainduriko okupazio azkarraren kalteak	1.005.210
Aktan kendu beharreko konturako aurretiazko gordailatzeak	- 5.008.280
Aktak, likidoa	107.706.481
Aurretiazko gordailatzeak eta okupazio azkarraren kalteak	8.615.722
Konturako ordainketa, Baztango udalak	8.301.432
<b>Atal honetan, guztira</b>	<b>124.623.635</b>
Arraizko Bentak-Zozaia desjabetzapena (akta 1)	481.752
<b>Guztira</b>	<b>125.105.387</b>

Ordain dadila agintzen duten kasuan kasuko foru aginduetan daude oinarriturik desjabetzapean kontzeptupean kontabilizatutako ordainketak. Agindu horiek osoki jasotzen dituzte okupazioaren aurreko aktak eta adiskidetasunezko adostasun-aktak, eta, kasu guztietan, aplikaturiko irizpideak azaltzeko desjabetzapean Atalak eginiko txosten bat gehitu da.

## X.2. LANDA-LURZORUAREN DESJABETZA-PENA

Obra hauek egiteko ez da hiri-lurzorurik desjabetu.

Adiskidetasunezko adostasun-akta bakoitza aztertu ondoren, desjabetu beharreko lurzorua

aurkitzen zireneko udal dermioaren arabera balioespen-desberdintasunik ez dela izan ondorioztatzen dugu, ezta desjabetzapena Belateko tunelari, Arraizko Bentak-Zozaia zatiari edo Almandozko tuneleko obra osagarriari lotua egotearen arabera ere.

Desjabetzapean guztiak elkarrekiko adostasunez ebatzi dira. Desjabetzapean epaimahaira ez da ezein kasutan jo. Hainbat doikuntza txiki oraindik ordaintzeke daude, benetan okupaturiko metroak aurreikusitakoak baino gehiago izateagatik. Edonola ere, ez dirudi kopuru handiak direnik.

Adiskidetasunezko adostasuneko akta bakoitza aztertu ondoren, honako koadro hau egin daiteke:

Finka-kopurua =	m <sup>2</sup>	Pta./m <sup>2</sup>	Guztira, pezetatan	Finken gaineko %	m <sup>2</sup> en gaineko %
35	187.320	50	9.366.000	33,65	42,62
1	5.303	80	424.240	0,96	1,21
1	3.632	100	363.200	0,96	0,83
4	6.260	120	751.200	3,85	1,42
6	60.909	133	8.100.897	5,77	13,86
2	1.270	150	190.500	1,92	0,29
17	69.603	160	11.136.480	16,35	15,84
15	23.517	200	4.703.400	14,42	5,35
2	28.444	220	6.257.680	1,92	6,47
13	46.664	240	11.199.360	12,50	10,62
1	744	250	186.000	0,96	0,17
3	3.272	330	1.079.760	2,88	0,74
1	1.423	600	853.800	0,96	0,32
1	873	750	654.750	0,96	0,20
1	152	800	121.600	0,96	0,03
1	110	1.000	110.000	0,96	0,03
104	439.496		55.498.867	100,00	100,00

Desjabeturiko lurzoruen ehuneko 42,62 (187.320 m<sup>2</sup>) ordaindu da 50 pta./m<sup>2</sup>ko prezioan. Lurzoru-zati horrek barnean hartzen ditu tunela eraikitzeke desjabetze guztiak eta Arraizko Bentak-Zozaia zatia eraikitzeke beharrezkoak diren zati bat. Mendi-eremua da, zuhaitzekin. Finka hauetarako baso zurgaila ere ordaindu da, 300 pezeta metro koadroa.

Desjabeturiko lurzoruen ehuneko 39,1 (172.244 m<sup>2</sup>) ordaindu da 160 eta 330 pta./m<sup>2</sup> arteko prezioekin; tarte hori normaltzat jotzen du Desjabetzapean Atalak. Beste 69.603 m<sup>2</sup> (ehuneko 15,84) 160 pta./m<sup>2</sup> ordaindu ziren, eta 46.664 m<sup>2</sup> (ehuneko 10,62), 240 pta./m<sup>2</sup>.

Arraiz-Orkineko Kontzejukoak diren zenbait lursailen truke, zeinak pagadiz eta hariztiz estalirik baitaude, 133 pta./m<sup>2</sup> ordaindu zen, zorua eta zoru gainekoa barne. Guztira, 60.909 m<sup>2</sup> ziren (ehuneko 14,60).

Adierazitakoa baino prezio altuagoan balioetsitako lurzoruez osaturiko gainontzeko portzentaia txikiaren justifikazioa izan liteke lurzoru izaera edo erabilera ezberdinekoa dela (fruta-arbolen baratzak, aparkalekuak eta abar). Kasu guztietan, desbiderapenak desjabetzapean Ataleko txosten baten bitartez justifikaturik daude.



### X.3. LURZORUAZ BESTEKO ZENBAIT KALTEORDAIN-KONTZEPTU

Horien xehekapena ikus daiteke epigrafe honen hasieran agertzen den koadroan. Aktak konparatu ondoren, honako hau ondorioztatzen dugu: kontzeptu guztiak modu homogeneoan balioetsiak izan direla.

Baso zurgua 300 edo 400 pta/m<sup>2</sup> ordaindu da, nolakoa den: basokoa edo sail landatu batekoa.

Zuhaitzak 3000 edo 4000 pezeta ordaindu dira bakoitza, motaren eta egoeraren arabera. Zuhaitz-multzoen kasuan, Mendi Zerbitzuak eginko balioespenera jo izan da.

Hormak eta itxiturak ere homogeneoki balioetsi dira finka guztietarako. Horma harrizkoa zenean, 1000 pta/m; abeltzaintza-itxiturak zirenean, 500 pta/m, eta abar.

Linea elektrikoetarako zortasunen balioespena 50 pta./m-koa da, kasu guztietan.

Eraikinei dagokienean, hauxe desjabetu da: ikuilu bat, 4 artegi-ikuilu, etxebizitza bat, garaje bat, 2 biltegi, biltegi-ikuilu bat eta estalpe bat. Obrak burutzean eraitsi egin zirelako desjabetu ziren etxebizitza, 2 biltegiak eta estalpea.

Desjabetzaren Ataleko txosten batean adierazten denez, "Eraikinei dagokienez, ikuilu-borden tasazioa bi mutur hauen artean egin da: 10.000 pta./m<sup>2</sup> okerrenak eta 22.000 pta./m<sup>2</sup> hobekien zaindurikoak eta erabiliak izaten ari zirenak". Hori hala izan zela egiaztatu ahal izan genuen. Etxebizitzaren tasazioa 47.000 pta/m<sup>2</sup>koa izan zen.

Azken batean, kalteordain-kontzeptu horien balioespenak homogeneoak izan dira eginiko desjabetzaren guztietarako, eta Desjabetzaren Atalak horiei buruzko txostena egin dauka.

## XI. BESTELAKOAK

Jarraian agertzen den koadroan epigrafe honetan bildutako gastuak xehekatzen dira:

	Zenbatekoa (pta.tan)
Iturengo piszifaktoria erostea	47.000.000
CTNEren lineak ordezteak	2.701.927
Linea elektrikoak ordezteak	16.351.261
Maketa egitea	746.350
Ikusentzutekoa	7.260.672
Belate inauguratzea	23.091.529
<b>Guztira</b>	<b>97.151.739</b>

### XI.I. ITURENGO PISZIFAKTORIA EROSTEA

Zuzeneko eskuratzea da, Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/85 Foru Legeko 8. artikularen babesean eginikoa. Lege horretan oinarrituz, Ekonomi eta Ogasun kontseilariak baimendu zuen, Herrilan Departamentuaren lerroaren kargura. Horren zergatia hauxe da: Nafarroako Gobernuak Oronoz-Mugairin daukan piszifaktorian obrek izan duten eragina: instalazioek eta produkzioak kalte handiak jasan zituzten obren ondorioz. Zuzeneko eskuratzea Nafarroako Gobernuaren Erabaki baten bitartez baimendu zen.

### XI.2. CTNEREN LINEAK ORDEZTEA

Azterturiko espedienteetan ez zen agertzen ordainketa horiei buruzko dokumentaziorik. Adierazitako zenbatekoa kontabilitate bidez jasotakoa da.

### XI.3. LINEA ELEKTRIKOAK ORDEZTEA

	Zenbatekoa pezetatan
Iberdrola.- Lineak ordezteak	2.876.482
Iberdrola.- Lineak ordezteak	5.497.608
Iberdrola.- Lineak ordezteak	1.676.509
Iberdrola.- Lineak ordezteak	1.932.109
Iberdrola.- Lineak ordezteak	3.891.401
Iberdrola.- Lineak ordezteak	447.152
<b>Guztira</b>	<b>16.351.261</b>

Lehenengo hiruei buruzko espedienteak bakarrik egiaztatu ditugu. Ez dizkigute beste hirurak utzi. Gure ustez, III. zatiari buruzko espedientetik guretzat ezezaguna den atalean aurkitzen dira. Azken horiei dagokienez aipaturiko zenbatekoa kontabilitatean erregistraturiko ordainketa-agin-duetatik ondorioztatzen dena da.

Kontratu horiei ez zaie aplikatzen administrazio-kontratazioko araubidea, KFLko 2.2.b) artikulari berari jarraituz, horrelako eragiketetan legeko xedapenek eragiten dutelako; kasu honetan, Sistema Elektriko Nazionalaren Antolamenduari buruzko Legeak.

Aipaturiko espedienteak aztertu ondoren, guztietan dago honako hauen konstantzia: Iberdrolari aurrekontua eskatu izanarena, aurrekontuarena, administrazio-aurrekariak eta esku hartzeko beharra azaltzen dituen proposamen-txostenarena, aurrekontu-kreditua badagoela adierazten duen kontuhartzaitza delegatuaren txostenarena eta

kontratazio-organoaren ebazpenarena, zeinak aurrekontua eta gastua onesten baititu eta lineen jabeari konpromisoa adierazten baitio. Halaber, Iberdrolaren fakturaren, obrak nahi bezala burutu direla adierazten duen proposamen-txostenaren, kargurako aurrekontu-lerroa onartzen duen kontuhartzailtza-txostenaren eta ordain dadila agintzen duen kontratazio-organoaren ebazpenaren konstantzia ere badago.

#### XI.4. MAKETA EGITEA

Laguntza teknikorako kontratu bat da. Zuzenki esleitua da, eta, "Kontzeju eta Udaletarako informazio publikoko prozesuaren osagarri gisa", Arraizko Bentak-Zozaia zatiaren maketa bat egitea du xede.

Foru Komunitateko Administrazioak izenpetzen dituen laguntza teknikorako kontratuak arautzen dituen apirilaren 25eko 161/91 Foru Dekretuko II. kapituluak galdatzen dituen prestakuntzarako administrazio-jarduketa guztiak biltzen ditu bere baitan kontratazio-espeditentak: AKPO, proposamen-txostena, txosten juridiko eta kontuhartzailtza-ak eta kontratazio-organoaren ebazpena, nahiz eta kontratuaren formalizazioaren konstantziarik ez izan; horrela, aipaturiko Foru Dekretuko 11. artikulua bete gabe uzten da, bertan kontratua administrazio-dokumentu bitartez formalizatzea agintzen baita, "berorren esleipen-modua eta zenbatekoa edozein direla ere".

Ordainketarako proposamen-txostenak adierazten duenez, lana adostasunez hartu da. Agindutako ordainketaren zenbatekoa fakturakoarekin eta esleipen-aurrekontuarekin bat dator.

#### XI.5. IKUSENTZUTEKOA

Laguntza teknikorako kontratua, horren xedea arlo hori arautzen duen 161/91 Foru Dekretuko 3.artikuluko kasuen artean aurkitzen baita.

Ez da, ordea, Herrilan Departamentuak izenpetutako kontratu bat. Ekimena Lehendakaritza Departamentuko Komunikazio Zerbitzuarena da; bertako zuzendariak Herrilan Kontseilariarengana jo zuen, hauxe esanez: ikusentzuteko bat egin behar zela, bitarteko guztiekin, horren emaitza espektakularra izan zedin. Helburua ikusentzute-

ko hori bide berria inauguratzean proiektatzea zen, populazio guztiarentzako publizitate-kanpaina baten elementu zentral gisa.

Lehendakaritza Zerbitzu horrek Blok, S.A. enpresari eman zion hartarako Proiektua prestatzeko ardura. Enpresa hori 1997rako Nafarroako Gobernuaren publizitate bereziaren esleipen-hartzailea zen. Proiektuaren zenbatekoa 7.563.200 pezetakoa zen; horregatik, Herrilan Departamentuari proposatu zion filmea egitea onetsi zezala, eta, horrekin batera, baita horretarako gastua, egoki ziren klausulak eta aipaturiko enpresari esleipena egitea.

Laburtuz: kontratuaren administrazio-izapidatze guztia Lehendakaritza Departamentuak egin du; Herrilanekeoa, berriz, honetara mugatu da: dituen aurrekontu-fondoen kargura gastua baimentzera.

#### XI.6. BELATE INAUGURATZEA

Kontzeptu honetan adierazitako gastutik 1997ko 10.648.886 pezeta ordaindu izana egiaztatzen dugu. Nafarroako Gobernuaren 1997ko azaroaren 3ko Erabakiz, inaugurazio-ekitaldien programa onetsi zen. Antolamendu-gastuak finantzatzeko 5 milioi pezetako gastua onetsi zen, eta, beste 5 milioi, publizitate-kanpaina bat egiteko; bi horiek, Herrilan Departamentuko lerroen kargura. Ekitaldiak antolatzearen eta publizitate-kanpaina kudeatzearen ardura Lehendakaritza Departamentuari eman zitzaion. Horretarako, zenbait Departamentu eta unitatek –horien artean, Herrilanekeoak– beharrezkoa zen laguntza eman-go zuten.

Bestalde, foru agindu bidez 10.648.886 pezetako gastua onetsi zen. 23 fakturak egiaztatzen ditugu, eta horien baturak aipaturiko emaitza dauka. Guztiak inauguraziorako gastuei dagozkie, eta Nafarroako Gobernuko Protokolo Zerbitzuaren oniritziarekin daude baimenduta.

Francisco Javier Sesma Masa, lan honen arduradun den kontu-ikuskatzailearen proposamenez egin da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko urriaren 20an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**ERANSKINAK****1. ERANSKINA. 96011 LERROAREN BETETZE-MAILA. IRUÑA BEHOBIA ARDATZA**

Urtea	Betetze-maila
1988	193.864.487
1989	682.355.029
1990	1.142.574.528
1991	765.940.968
1992	1.084.816.122
1993	1.083.371.147
1994	2.089.625.420
1995	4.778.387.720
1996	2.916.338.817
1997	2.370.619.575
1998	116.289.621

Kontabilizatutako eragiketak izaera honetakoak dira:

Kontzeptua	Zenbatekoa pta.tan	Portzentaia
Desjabetzapenak eta lursailak erostea	401.722.020	2,35
Proiektuak	194.150.363	1,13
Laguntza teknikoa	478.913.911	2,80
Obra	15.655.330.219	91,51
Linea elektrikoak eta argiztapena	177.970.340	1,04
Hari telefonikoak	19.304.954	0,11
Landareztatzea, ingurugiro-neurriak	140.208.286	0,82
Askotariko gastuak	26.633.635	0,16
Publizitatea	13.660.085	0,08
<b>Guztira</b>	<b>17.107.893.813</b>	<b>100</b>

**2. ERANSKINA. 96011 LERROAREN BETETZE-MAILA. OBREI DAGOKIENEAN**

Kontzeptua	Zenbatekoa	Portzentaia
3 bide, Oriain-Sorauren	9.374.754	0,05
3 bide eta Berako errepidea	114.077.882	0,67
Belate-Almandoz	1.197.111.236	7,00
Sestra-aldaketa, N-121	16.825.043	0,10
Sestra-aldaketa, 74,5 pk	15791.143	0,09
Sunbilla-Donztebe bidea, 1. fasea	12.668.507	0,07
ITEC hitzarmena	28.815.413	0,17
CTNE (identifikatu gabe)	6.288.579	0,04
Desjabetzapenak	401.722.020	2,35
Beste proiektuak, ordainsariak	62.321.676	0,36
Iberdrola	6.881.381	0,04
Ezkaba mendia-Hegiak egonkortzea	87.479.993	0,51
Oriain-Berriogoiti	33.569.431	0,20
Bestelako gastuak	13.357.357	0,08
Bestelakoak	45.402.355	0,27
Iruña-Behobia	144.954.678	0,85
Publizitatea	13.660.085	0,08
Sorauren-	458.688.620	2,68
Sunbilla-Donztebe	153.645.888	0,90
Belateko tunela	4.581.625.609	26,78
Berako saihesbideko tunela	58.349.157	0,34
Belate eta Almandozko tunelak	23.612.509	0,14
Arraizko Bentak-Zozaia	6.267.155.285	36,63
Arraiozko saihesbidea	3.650.000	0,02
Olagueko saihesbidea	37.935.125	0,22
Soraurengo saihesbidea	373.397.152	2,18
Sunbillako saihesbidea	1.868.391.745	10,92
Berako saihesbidea	1.004.008.489	5,87
Burutaingo eskualdea	67.132.701	0,39
<b>Guztira</b>	<b>17.107.893.813</b>	<b>100</b>

**3. ERANSKINA. 96011 LERROAREN BETETZE-MAILA. 1988TIK 1997 ARTEKO EKITALDIAK. OBREN ETA URTEEN ARABERAKO SAILKAPENA.**

Kontzeptua	1988	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	Total
1 Desjabetzapenak	7.914.370	24.155.590	40.078.592	21.474.493	40.760.737	10.914.672	71.874.603	106.373.807	2.919.467	75.255.689	401.722.020
Publizitatea	1.142.310	753.760	477.680	489.832	639.628	223.965	1.186.329	57.562	599.617	8.089.402	13.660.085
1 Berako saihshebidea	49.897.140	378.796.056	358.574.475	144.553.099	72.187.719	0	0	0	0	0	1.004.008.489
11 Sunbilla-Donztebe	19.999.998	130.372.001	3.273.889	0	0	0	0	0	0	0	153.645.888
12 3 bide eta Berako errepeida	97.540.950	16.347.628	189.304	0	0	0	0	0	0	0	114.077.882
13 Burtaingo eskualea	4.701.212	62.431.489	0	0	0	0	0	0	0	0	67.132.701
21 Sunbilla-Donztebe errepeida, 1. fasea	12.668.507	0	0	0	0	0	0	0	0	0	12.668.507
2 Berako saihshebideko tunela	0	14.996.240	23.529.363	19.823.554	0	0	0	0	0	0	58.349.157
3 Bestelako proiektuak, ordainsariak	0	0	0	62.321.676	0	0	0	0	0	0	62.321.676
4 Sunbilitako saihshebidea	0	0	11.110.400	267.478.139	852.744.002	705.010.164	11.534.134	2.803.254	0	17.711.652	1.868.391.745
5 Iruña-Behobia	0	48.539.649	89.815.789	0	1.063.799	0	5.535.441	0	0	0	144.954.678
6 Sestra-aldaketa, 74.5. pk.	0	0	0	15.791.143	0	0	0	0	0	0	15.791.143
7 ITEC hitzarmena	0	0	15.321.600	4.623.360	8.870.453	0	0	0	0	0	28.815.413
8 Arraizko saihshebidea	0	0	3.650.000	0	0	0	0	0	0	0	3.650.000
9 Sorarengi-Ostiz	0	0	334.966.932	115.452.291	0	8.269.397	0	0	0	0	458.688.620
10 Sorarengi saihshebidea	0	0	261.586.504	111.810.648	0	0	0	0	0	0	373.397.152
14 3 bide, Orikain-Sorarengi	0	0	0	0	0	0	0	0	2.778.400	6.596.354	9.374.754
15 Belate eta Almandozko tunelak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	23.612.509	23.612.509
16 Belateko tunela	0	0	0	0	66.531.287	278.927.707	916.974.810	1.329.184.084	1.203.232.102	786.775.619	4.581.625.609
17 Arraizko Bentak-Zozala	0	0	0	0	0	0	1.040.792.979	3.284.547.118	1.684.653.073	257.162.115	6.267.155.285
18 Olagueko saihshebidea	0	0	0	0	0	0	0	0	0	37.935.125	37.935.125
19 Sestra-aldaketa, N-121	0	0	0	0	16.825.043	0	0	0	0	0	16.825.043
20 Belate-Almandoz	0	0	0	0	0	0	5.957.000	38.629.901	21.948.054	1.130.576.281	1.197.111.236
22 Ezkaba mendia, hegijak egonkortzea	0	0	0	0	23.280.090	64.199.903	0	0	0	0	87.479.993
23 Orikain-Berrigotiti	0	0	0	0	0	9.979.796	23.455.401	134.234	0	0	33.569.431
24 Bestelakoak	0	971.954	0	1.345.249	0	72.423	11.163.181	16.180.608	0	15.668.940	45.402.355
Iberdrola	0	0	0	0	0	5.252.687	1.151.542	477.152	0	0	6.881.381
CTNE (identifikatu gabe)	0	4.990.662	0	777.484	0	520.433	0	0	0	0	6.288.579
Bestelako gastuak	0	0	0	0	1.913.364	0	0	0	208.104	11.235.889	13.357.357
<b>Guztira</b>	<b>193.864.487</b>	<b>682.355.029</b>	<b>1.142.574.528</b>	<b>765.940.988</b>	<b>1.094.816.122</b>	<b>1.083.371.147</b>	<b>2.089.625.420</b>	<b>4.778.387.720</b>	<b>2.916.338.817</b>	<b>2.370.619.575</b>	<b>17.107.893.813</b>

## 4.1. ERANSKINA. BELATEKO TUNELAREN ERAIKUNTZAN EGINIKO ALDAKETAK

Aldaketa	Kontzeptua	Zenbatekoa	KFLko aldaketa	Kausa	Kalifikazio juridikoa
1.	Iparraldeko irekiunea lekuz aldatzea	180.561.572	Obra-unitateen gehikuntza (56.1 art.)	Proiektua egin zen fasean zundaketarik ez egitea, bertaratzeko biderik ez zegoelako.	Proiektua egitean aurrekusi ez ziren kausa teknikoak (RCEko 149. art.).
2.		158.009.497	Obra-unitateen gehikuntza (56.1 art.)	1.- Sostengu-sekzio astunagoen beharra. 2.- Abeltzeko eremuen egonkortasunariako tratamendua	Proiektua egitean aurrekusi ez ziren kausa teknikoak (RCEko 149. art.).
3.	Tunela iragazkaitz egitea	221.834.807	Obra-unitateen gehikuntza (56.1 art.)	Tunel osoa zulatu ondoren somatutako beharra	
	6.182 pk-ko faila	33.504.936	Kontratan sartu gabeko obra-unitateak (56.1 art.)	Aurrekusi gabeko faila. Drenak eta mikropilote-koroa beharrezko ditu.	
	Urak tratatzea	41.453.365	Kontratan sartu gabeko obra-unitateak (56.1 art.)	Proiektuaren aurrekontuan sartuta ez dagoen ingurugiro-betebeharra.	
	Arbelak sendotzea	42.765.252	Obra-unitateen gehikuntza (56.1 art.)	Arbel-eremua indartu beharra	Proiektua egitean aurrekusi ez ziren kausa teknikoak (RCEko 149. art.).
	Arbelak, neurria gaindizten duen gunita kop.	120.198.620	Obra-unitateen gehikuntza (56.1 art.)		
	Sostenguaren kostua amaieran igotzea	73.729.957	Obra-unitateen gehikuntza (56.1 art.)		Proiektuari egoztekoak diren hutsuneak eta eskasasuna.
	Bertaratzeko bidea (neurketa doitzea)	-9.385.894	Obra-unitateen gutxiagotzea (56.1 art.)		
	BEZ doikuntza	17.975.833			
	Guztira	542.076.876			
4.	Sostengua indartzea	74.764.532	Obra-unitateen gehikuntza (56.1 art.)	Iturburuak agertzea,	Beharrian berriak eta proiektua egitean aurrekusi ez ziren kausa teknikoak (RCEko 149. art.).
	Sostengua indartzea	50.751.607	Kontratan sartu gabeko obra-unitateak (56.1 art.)	sostengua piztatzea.	
	Guztira	125.516.139			
Behin-behineko ikidazioa	Harrilubetak eraikitzea	51.622.937	Obra-unitateen gehikuntza (56.1 art.)	Lubizkiak. Ur asko tuneleko zolarrian, horregatik, barne eta kanpo drenajeak eraiki behar dira. Industriakoa bertikalki hondoratu izana; ondorioz, kontra-ganga bat beharrezkoa da.	
	Tunelko 65 metro indartzea	121.731.893	Obra-unitateen gehikuntza (56.1 art.)		
	Neurketak doitzea (gabia)	9.361.482	Benean burururiko unitateak, aldean (56.3)		
	Fabrikako mota beste batekin ordeztzea	-37.634.307	Fabrikako mota beste batekin ordeztzea (56.1)	Komenigarriagoa da instalazio-proiektuko dren eta kanalizazioak orain egitea.	
	Guztira	145.082.006			

## 4.2. ERANSKINA. BELATEKO MENDATEKO ALDAKETAK. TUNELETAKO INSTALAZIOAK

Aldaketa	Kontzeptua	Zenbatekoa	KFLko aldaketa	Kausa	Kalifikazio juridikoa
1.	Komunikazioak ugaritzea: SOS Navarra, Guardia Zibila, telefonia mugikorra	88.074.294	Kontratan aurrekusi gabeko obra unitateak sartzea, edo kontratan aurrekusiakoez funtsean oso bestelakoak izatea	Komunikazioak hobetzea, telefonia mugikorrak, suhitzaleen irati-telefoniak, babes zibilarenak, guardia zibilarenak eta beste zenbait ekipamenduk jasaten duten "Itzala" kenduz, Telekomunikazio Zerbitzuko zuzendaritza-txostenar jarrailuz.	Beharizan berriak eta proiektua egitean aurrekusi ez ziren kausak.
		-	Kontratan aurrekusiako obra-unitateak ezeztatzea, ondorio gisa.		
	Guztira	38.975.774			
2.	Tunelak usiatu eta mantentzeko hileroko unitatea	39.964.322	Kontratan aurrekusi gabeko obra unitateak sartzea, edo kontratan aurrekusiakoez funtsean oso bestelakoak izatea	Tunelak publikoari irekitzeko, beharrezkoa da langilez eta bitarteko materialaz osaturiko talde bat, zeina kontrol-guneaz arduratuko den eta instalazioak mantendu eta ikuskatuko dituen.	Aldaketaren izaera (zerbitzu-ematea) eta kontratu nagusiarena (obra) desberdinak izatea.
	Guztira	39.964.322			

**4.3. ERANSKINA. BELATEKO MENDATEKO ALDAKETAK. I. AZPIZATIA.**

Aldaketa	Kontzeptua	Zenbatekoa	KFLko aldaketa	Kausa	Kalifikazio juridikoa
1.	Zelaiaketa	24.819,768	Obra-unitateak gehitzea (56.1 art.)	Lubetarako baliagarria ez den buztina agertzea. 54.448 m <sup>3</sup> hondeatu behar da, mailegutarako.	
	P-1 egitura zimentatzea.	8.639.694	Obra-unitateak gehitzea (56.1 art.)	Katak egin ondoren, lurzorua ez du aurreikusitako zimentazioa onartzen.	Proiektua egitean aurreikusi ez ziren kausa teknikoak
	Zerbitzuak berrezartzea	3.443.386	Obra-unitateak gehitzea (56.1 art.)	Arraizko Benetako ur-hornidurarako hodia bijartztea. T uneleko kontratuari dagokion zatia ez zegoen proiektu hartan aurreikusita. Zati honetara gehitzea erabaki da.	(RCEko 149. art.)
	Landareztatzea. Lur begetala zabaltzea.	7.866.272	Obra osagarriak eta akzesorioak (56. art.)	Landareztatze proiektutik banandurikoa.	
	Guztira	44.771.120			
2.	6 hilabeteko etetea.	0	Aldi baterako etetea (55. art.)	Ondoko zatiaren atzerapena zela-eta.	
3.	Aldi baterako etetea mugarik gabe luzatzea	0	Aldi baterako etetea (55. art.)	Ondoko zatiaren atzerapena zela-eta.	
Behin-behineko	Ezpondak askatzea	20.307.829	Obra-unitateak gehitzea (56.1 art.)	Ezpondetako hainbat material askatu izana obra etena zegoen bitartean, hori kontratistari egoteakoa ez izanik.	
ilkidazioa	Gaitzadaztea, tuneleko mantentze arloa.	6.162.784	Obra-unitateak gehitzea (56.1 art.)		
	BEZ aldaketa	3.591.129			
	Proiektuko unitate-neurketak doitzea.	13.316.346	Benetan burururiko unitateen aldaketa		
	Guztira	39.964.322			



## 4.4. ERANSKINA. BELATEKO MENDATEKO ALDAKETAK. II. AZPIZATIA

Aldaketa	Kontzeptua	Zenbatekoa	KFLko aldaketa	Kausa	Kalifikazio Juridikoa
1.	Trazadura, hormak eta abar aldatzea.	141.371.105	Obra-unitateak gehitzea. Kontratuan sartu gabeko obra-unitateak	Ezpondak egitea obraren egonkortasuna bermatzeko. Lur-defizita (proiektuaren zati-zehaztearengatik). Tunelako pk aldatzea (ondoan). Udalek hala eskatuta.	Proiektuan aurrekusi gabeko beharrian berriak eta proiektua egitean aurrekusi gabeko kausa teknikoak. Kontratuaren behar bezala betetzeko egin beharrekoak ez, baina egitea komeni den obra osagarri eta akzesorioak.
	San Blas Bentako Bidea	22.543.248	Obra osagarri eta akzesorioak		
	Mendiola Auzoko Bidea	7.108.359	Obra osagarri eta akzesorioak		
	Landareziatzea. Lur begetala zabaltzea.	5.375.368	Obra osagarri eta akzesorioak	Landareziatze proiektutik banandu	
	Guztira	176.398.080			
2.	Zelaitzea	88.248.498	Obra-unitateak gehitzea.	Buztinezko eremuak agertzea, aurrekusiakoak baino saneaneta handiagoak, leherketen ondorioak zuzentzeko garbiketa eta abar.	
	Zelaitzea	7.368.968	Obra-unitate desberdinak sartzea	Neurketak gehitzea eta fabrikako bi obra berri sartzea.	
	Drenatzea	22.123.725	Obra-unitateak gehitzea.		
	Bidezorruak	0			
	Almandozko tunela	169.915.546	Obra-unitateak gehitzea eta obra-unitate desberdinak sartzea (xehekapenik gabe)	Tunelko ahoen diseinu berria: tunel fatisuen bidezkoa, ezponden egonkortasuna bermatzeko Neurketak doitzea eta aurrekusi gabeko bi horma erakitzea, ezpondak egonkortzeko. Neurketak doitzea.	Proiektukoaren eta benetan beharrezkoa zenaren artean hainbat alde (56.3 artikuluko %10 baino handiago), proiektuaren aurrekuspun-falta batzuk, eta nahitaez burutu behar diren obra berriak.
	Hormak	36.425.582			
	Osagarriak. Askotarikoak.	10.964.638	Obra-unitateak gehitzea.		
	Askotarikoak. Ezpondetako hidroeretea.	4.378.616	Kontratuan aurrekusi gabeko obra-unitateak sartzea	Ezpondak hidroeretea, egonkortasuna bermatzeko	
	Askotarikoak. Mendiola auzoko hodia birjartzea.	7.925.580	Kontratuan aurrekusi gabeko obra-unitateak sartzea	Leherketen ondorioz, iturburua eten egin zen.	
	Bideak	-2.218.002	Obra-unitateak gutxitzea		
	BEZ aldaketa	15.034.055			
	Guztira	353.167.206			
	Zelaitzea	30.094.895	Obra-unitateak gehitzea.	Hondeaketa gehiago, ezponda egonkortzeko, 8,5 pk.	
	Drenatzea	20.026.100	Obra-unitateak gehitzea.	Tunelaren iparraldeko ahoko erreka desbideratzea. Areka gehitzea.	
	Bidezorruak	225.483	Obra-unitateak gehitzea.		
Behin-	Almandozko tunela	18.146.964	Obra-unitateak gehitzea.	Tunel fatisuetarako belegarria. Buztinezko eremuatarako euskarri osagarria.	
	Hormak	3.874.047	Obra-unitateak gehitzea.	Ipar eta hegoaldeko muturretarako laguntza-hormak.	
	Osagarriak. Askotarikoak	8.129.878	Obra-unitateak gehitzea.	Seinale bertikal eta horizontalek gaur egungo araudiari egokitzea.	
behineko				Segurtasun eta higiepe arbetan epea luzatzea. Lur begetala eta hidroeretea gehitzea.	
	Bideak	5.806.419	Obra-unitateak gehitzea.	Bideak luzeagoak, Udalak eskaturikoari erantzunez.	
likidazioa	Kanalizazio akzesorioak	1.121.798	Obra-unitateak gehitzea.	Instalazio-proiektuan aurrekusiakozko kanalizazioak;	Instalazio Proiektutik bananduriko obra osagarriak.
	Bestelakoak	926.103	Obra-unitateak gehitzea.	bidezorruak jarri aurretik egin zen zati honetan.	
	Guztira	88.351.687			

## 4.5. ERANSKINA. BELATEKO MENDATEKO ALDAKETAK. III. AZPIZATIA

Aldaketa	Kontzeptua	Zenbatekoa	KFLko aldaketa	Kausa	Kalifikazio juridikoa
1.	ESKAKIZUNAK/ALEGAZIOAK				
	Donejakue Bidea	12.516.359			
	Aberetek erreka zeharkatzeko iraganbidea	5.377.230			
	Galiboa handitzea	2.469.042			
	<u>Ezpondetako alanbrada</u>	<u>2.824.720</u>			
	Atal hau, guztira	23.187.351			
	Bide-segurtasuneko neurriak	27.645.072			
	Ezpondetako material-erorketak saihesteko finkatze-lanak	43.612.747			Izandako istripuak direla-eta. Bihurguneetako defentsak, desbideraketak eta balaztatzeako falkak Lur-erazketak egitean ezpondetan izandako material-erorketak
	PROIEKTUARI EGOZTEKOA				
	12.5 bidezubia	45.181.348			
	Drenejak	15.563.876			
	13 bidezubia	33.743.340			
	Erreak	41.114.586			
	Hondakindegak	43.448.276			
	Taulak iragazkaiztea	8.115.968			
	Atal honetan, guztira	187.167.484			
	Batura	281.612.564			
	Hortidura bereziaren kargura	71.257.819			
	Aldaketa, guztira	210.354.745			
2..	Ezpondetako desegonkortasuna	148.857.316			
	Trazako saneanak	26.930.838			
	Landareztatzea (lurra bildu eta zabalzea)	23.652.477			
	Ingunugiro jarduketak	46.612.183			
	Kaltetuen errebindikazioak	2.610.626			
	Marxan jartzeko jarduketak	28.235.394			
	Proiektuko jarduketak osagarriak	47.558.821			
	Proiektuaren hobekuntzak	9.620.665			
	Guztira	334.078.320			

Aldaketa	Kontzeptua	Zenbatekoa	KFLko aldaketa	Kausa	Kalifikazio juridikoa
3.	Bidezona aldatzea	0	Kontratan aurrekusiako obra-unitatea aurrekusi ez den beste batekin ordeztzea	Aurrekusiako materialak ezin daitezke indusketatik erauzi, "zati-zehaztearen" ondorioz.	Proiektuan aurrekusi gabeko kausa teknikoak.
4.	Ezponda ezegonkorrak	26.476.264	Kontratan sartutako obra-unitateak gehitzea	Material-erorketak lurzoruan edo ezpondetan.	Proiektuan aurrekusi gabeko kausa teknikoak.
	Obra complementarias	11.838.356	Kontratan ez sartutako obra-unitateak	Obra ireaupena bermatzeko edo kalteak saihesteko ezinbesteko aldaketa (56.2 art.)	
	Gelditzeko eremua	2.423.775	Obra osagarri edo akzesorioak		
	Balaztatze-zola	4.308.934	Obra osagarri edo akzesorioak		
	Lubeta aldeko zintarria	656.035	Obra osagarri edo akzesorioak	Obra osagarri edo akzesorioak. Horiek egitea ez da beharrezkoa kontratua behar bezala betetzeko.	
	Bidezubiko eskubanda aldatzea	2.384.038	Obra osagarri edo akzesorioak		
	SOS eta hainbat zerbitzutarako kanalizazioa	3.165.998	Proiektuan aurrekusiakordezten dituzten obra-unitateak		
	Guztira	51.285.402			
5.	Obra-segregazioa	-23.672.355	Obra-unitateak kentzea (56.1. art.)	Almandozko tunela bukatzeari (2. azpizalari; horretarako, urtebeteko epea aurrekusten da) loturiko obrak. Eteitea ez da komeni.	
6.	Ezponda ezegonkorrak konponitzea, Almandozko saihestubidean.	38.897.634	Obra ireaupena bermatzeko eta kalteak saihesteko ezinbesteko aldaketa	Lubiziak ezponda eta bideetan.	
	BEZ doikuntza	10.436.289			
	Behin-behineko	316.887.441	Benetan burututako obra-unitateen kopuruan izandako aldaketa. %10 baino txikiagoa (56.3. art.)		
	Horridura bereziaren kargura	-86.485.400			
	Jadanik erabilitako horridura berezia	-71.257.819			
	Aldaketaren kargura	169.580.511			
7	Almandozko lotuenearen adar batean ezponda berriro jantzea	27.599.908	Larrialdi-obrak (KFLko 27. art.)	Material-erorketa ezpondan, euri asko egiteagatik. Ez da kontratistari egozti beharrezkoa.	Larrialdi-obrak (KFLko 27. art.)
	Bestelako material-erorketak	3.580.202		Bermealdian eginiko konponketa.	

## 4.6. ERANSKINA. BELATEKO MENDATEKO ALDAKETAK. IV. AZPIZATIA

Aldaketa	Kontzeptua	Zenbatekoa	KFLko aldaketa	Kausa	Kalifikazio Juridikoa
1.	Landareztatzea (lurra bildu eta zabaltzea) Donejakue Bidearen azpiko pasabidea Hornidura leheneratzea	15.297.357 2.763.704 7.640.315	Obra osagarri edo akzesorioak Obra osagarri edo akzesorioak Obra osagarri edo akzesorioak	Landareztatze proiektua, banantzea Merkataritza eta Turismo Zuzendari Nag. ekimenez Oronoz-Mugariko ur-hartunea lekuz aldatzea, uraren kalitatea obren ondorioz jatsi egin delako Kontratuak eskatu duelako (kosti gehigarriak gabe)	Obra osagarri edo akzesorioak: horiek egitea ez da beharrezkoa kontratua behar bezala betetzeko, baina bai komenigarria.
	Bidezoruaren sekzioa aldatzea	0	Obra mota bat bestearekin ordeztzea		Hobekuntza, kontratuak proposaturikoa.
	Guztira	25.701.376			
Behin-behineko azken likidazioa		15.884.021	Obra-unitateak gehitzea	Saneaketak Marin errekaaren antzinako ibilguan. Harri-lubeta indartzeko hormigoia Lubiziei eustea. Bi drenatze-kainu berri. Trafikoa babesteko sarea, ezpondan.	Proiektuko kubikazioetan aurreikusitako obra-unitateen kopuruaren gainetik benetan burututako kopurua, behin-behineko likidazioan sartu beharrezkoa.
	BEZ aldaketa	3.785.969			
	Guztira	19.669.990			
Behin-betiko likidazioa	Indusketa Uhindura bikoitzeke banda	899.318 147.195	Obra-unitateak gehitzea Obra-unitateak gehitzea	Bermealdian egnitiko obrak, bermealdiko kontsebaziorako justifikatu beharreko orotarreko kopuruko kontusailaren kargura.	
	Guztira	1.046.513			